# >anboto

DURANGALDEKO ASTEKARIA
2017ko apirilaren 7a
15. urtea
672. alea
www.anboto.org
TOKIKOM


## Kultura

Emanaldi eta ikastaro sortagaz dator Topaklown, apirilaren 12tik 16ra bitartean > 15









# Korrikako beteranoen lekukoa

Gaur arratsaldean Korrika dator berriro, euskaltzaleak batzeko Zornotzatik Mallabiraino. Aurtengo edizioan ekimenaren sortzaileak omentzen dabiltza, eta hasierako sasoiez asko dakite Ibon Aromak eta Kepa Bengoak. > 4-5

***"Duen bapatekotasun handiak egiten du horren eraginkor Twitter"***



Uxue Martinez | Euskampus Fundazioa > 10

## Maiatzaren 7ko galdeketetako galderak jakinarazi dituzte

Hilabete falta da Durangon, Zornotzan, Elorrion, Abadiñon eta Zaldibarren egingo dituzten herri galdeketetarako. Durangaldeko Gure Esku Dagok egun horretan herri bakoitzak egingo dituen galderen berri eman du asteon. Herri bakoitzak bere galdera aukeratu du. > 6


EZKURDI OSASUN ZENTROA
DIABETESA DAUKATEN PERTSONENTZAKO ARRETA ETA LAGUNTZA ZERBITZUA
· Arreta indibiduala eta gertukoa.
· Itxaron zerrendarik gabea.
· Diabetesa duenari sorturiko gaitz akutu zein konplikazioetan laguntza zerbitzua.
Igotz Aranbarri.
Familia medikua eta diabetesean aditua.
PS E- 40/17
Ezkurdi
osasun zentroa-centro médico
Askatasun Etorbidea, 23
DURANGO
Tel.: 946 81 81 81



**Durango** > 2
Garateren dimisioa eskatzeko sinadurak batzen hasi dira

**Durango** > 3
Museo ondoko parkea zabaldu eta konponduko du udalak

**Durangaldea** > 6
Koikilik eta Iturrietak elkartasun bidaia egingo dute Mongoliara

**Mallabia** > 8
Ekainean hasi gura dituzte anfiteatroa estaltzeko lanak

**Herririk herri**

# Garateren dimisioa eskatzeko sinadurak batzen hasi dira feministak

Eguenetan egiten den kontzentrazioan edota Andragunean sinatu daitekeela jakitera eman dute




Joan zen asteko bilkuran protesta egin zuten hainbat herritarrek.

**DURANGO** M.Z. /M.O.
Durangoko Plataforma Feminista sinadurak biltzen hasi da Fran Garateren dimisioa eskatzeko. Sexu abusuak egitea egotzita atxilotu zuten PPko zinegotzia, eta epaileak auzia artxibatu arren, emakumeak errekurritu egin zuen. Eguenetan Andra Marian egiten den kontzentrazioan edota Andragunean –egunero– sinatu daitekeela jakitera eman dute plataformako kideek.

> Orain, berriz, durangarrei zein herriko elkarteei atxikimendua eskatu diete plataformako kideek

Plataforma Feministak publikoki eskatu izan du zinegotziaren dimisioa azken asteetan; esaterako, joan zen asteko osoko bilkuran. Orain, berriz, durangarrei zein herriko elkarteei atxikimendua eskatuko diete plataformako kideek.

## Bera ordezkatzea

Plataforma Feministako kideek jakitera eman dutenez, Bizkaiko Audientzia Probintzialean jarritako salaketaren apelazio errekurtsoa ebatzia izan bitartean, PPri bitarteko guztiak jartzeko exijitu diote, zinegotziak kargua utzi eta beste pertsona batek ordezkatu dezan. Bestalde, Durangoko Udalari zein alderdi politiko guztiei gertaera “irmoki publikoki gaitzestea” eskatu diete.

> Errekurtsoa ebatzia izan bitartean, PPri bitarteko guztiak jarri ditzala exijitu diote

## Udalbatzaren eskaria

Hain zuzen ere, Garateri dimititzeko eskatu zion udalbatzak joan zen astean, EH Bildu eta Herriaren Eskubidearen aldeko botoagaz eta EAJ eta PSE-EE-ren abstentzioagaz. Feministek protesta egiteko deialdia egin, eta giro beroa bizi izan zen. Herritarrek protesta egin zuten Garatek berba hartu zuen bakoitzean, eta, bere gaia lantzean, aurrez aurre eskatu zioten udala uzteko.

Momentuz, ez du joateko jarrera agertu Garatek, eta erasoa egin izana ukatu du gainera.

# Komertzioak adinekoei begira atsegin izateko

Adineko Pertsonekin Hiri Atsegina da Durango

**DURANGO** Markel Onaindia
Adineko Pertsonekin Hiri Atsegina da Durango, ofizialki horrela izendatuta baitago. Konpromiso horren baitan, nagusien bizitza hobetzeko proiektuak sustatzen dituzte, eta orain merkataritza arloan sakondu gura dute. Komertzioak ere adinekoei begira atsegin izateko nahia dute.

> Kanpaina horren bidez, tratua hobetzeko ideiak jasoko dituzte merkatariek

*Adinekoekin Establezimendu Lagunkoia* deitzen da kanpaina, eta, horren bidez, tratua hobetzeko ideiak jasoko dituzte merkatariek. Ekimenera batzeko deia egin du Pilar Rios alkateorde eta Gizarte Ekintzako zinegotziak.

# Zirku italiarra dator Durangora asteburuan

**DURANGO** M.O.
*Bizitza* izeneko ikuskizuna eskainiko du asteburu honetan Zirku Italiarrak. “Jatorrizko basoan oinarritutako ikuskizuna da, bizitzaren misterio, indar eta poesiari eskainitakoa”, azaldu dute arduradunek. Akrobatak, dantzariak eta magoak egongo dira, eta, zelan ez, pailazorik ere ez da faltako. Gaur 19:00etan estreinatuko dute; bihar 17:00etan eta 19:30ean izango dira saioak, eta domekan 12:00etan eta 17:00etan.

# JAEDek Gran Hotelen dohaintza jaso du

Hotelak egindako ekarpena eskertu du Novalek

**DURANGO** Markel Onaindia
Beharra dutenei laguntzen dien JAED elkarteak Gran Hotelen dohaintza bat jaso du. Hotelak 50 manta eman dizkio, eta baliabide gutxi dituzten pertsonei helarazi dizkiete neguan. Udaleko Gizarte Ekintza Sailak bitartekari lana egin du.

Prentsa oharrean diotenez, hotelak egindako ekarpena eskertu du JAEDeko Covadonga Novalek. Gran Hoteleko zuzendari Roberto Delgadok azaldu du ez dela JAEDi laguntza ematen dioten lehen aldia. Besteak beste, Gabonetako zozketa solidarioan sariak eskaintzen dituzte, eta iaz ongintzazko festa bat ere ospatu zuten. Festa horretan 3.000 euro batu zituzten.

Aitziber Irigoras alkateak uste du garrantzitsua dela hotelak JAEDi lagundu izana. Bestalde, Pilar Riosek gogoratu du ekimen hau pobrezia energetikoari aurre egiteko kanpainan kokatu dutela.

anboto komunikabideak
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org
2017ko apirilaren 7a
14. urtea - 672. alea
Lege gordailua: BI-2268/01
ISSN: 1578-7028
Tirada: 11.500 ale

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.
**Erredakzio burua:** Markel Onaindia Txabarri.
**Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta.
**Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri.
**Publizitatea:** Itxaso Martinez de Arenaza Yarza eta Nagore Txintxurreta Isasi.
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urtiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, eta Maialen Zuazubiskar Gallastegi.
**Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa.
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

**Laguntzaileak:**
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua
Bizkaia foru aldundia diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

# Museo ondoko parkea konpondu eta guztiz zabalduko duela esan du Durangoko Udalak

EH Bilduk parkeko atea zabaldu eta konponketa batzuk egin zituen joan zen asteburuan, auzolanean




EH Bilduk deitutako herritarrak, zapatuan, parkean auzolanean.

**DURANGO** Markel Onaindia

Musika eskola inguruko parkean lez, Museo ondoko Etxezarreta parkea ere guztiz zabalduko du udalak. Hesiak kendu, eta barrukoa egokituko du. Benita Uribarrena borrokalari antifaxistaren izena ipiniko diote parkeari, eta inauguratzen dutenean bere alaba gonbidatuko dute ekitaldira, Pilar Rios alkateordearen esanetan. Parkea ekintza bandalikoen eraginez itxi zutela esan du, eta "puntu beltza" bilakatu zela.

### "Borondate kontua"

EH Bilduk auzolana burutu zuen itxita zegoen parkean, joan zen asteburuan. Kateak apurtu eta barrualdea garbitu zein atondu zuten. "Ez da onargarria parke publiko bat herritarrei itxita egotea", adierazi zuten oharrean. "Honegaz erakutsi dugu ez dela diru kontua, borondate kontua baino. Ez da sekulako inbertsiorik behar", azaldu du Dani Maeztuk. Gero, udalak berriro itxi zuen parkea.

### Museoko obrak

Horrez gainera, Museoan bertan obrak egingo dituzte, irisgarriagoa egiteko. Eskailerak berritu eta komunak aldatuko dituzte, besteak beste. Kasik aho batez onartu zuten egitasmoa osoko bilkuran, soilik EH Bildu agertu baitzen kontra. Koalizioaren ustez, beste lehentasun batzuk daude, zaborra batzeko kamioiak berriztea, adibidez.

Horrez gainera, Museoan bertan obrak egingo dituzte, irisgarriagoa egiteko

# Rosario Mendiberen lore eskaintza, 31n

Bonbardaketan hildakoak oroitu zituzten



Mendibe, hildakoei lore eskaintza egiten.

**DURANGO** Markel Onaindia

Bonbardaketan hildakoak oroitzeko joan zen barikuan eginiko ekitaldi zibilean Rosario Mendibe lekukoa izan zen lore eskaintza egiteko arduraduna. Iurretatik ikusi zuen faxisten erasoa 1937ko martxoaren 31n; orduan orain baino etxe gutxiago zeuden, eta hegazkinak Durangon bonbak botatzen ikusi zituen. Gerediagak eta Kriskitinek antolatzen dute ekitaldia. Inplikatutako estatu eta erakundeen aldetik barkamena exijitzen dute. Hildakoak ez dituzte ahaztuko: "Ahazten ez dena, ez da hiltzen".

### "Esperimentu nazkagarria"

Horren aurretik, eguerdian, Gerra Zibileko biktimak omendu zituen udalak hilerrian. "Izua sortzeko esperimentu nazkagarria izan zen", adierazi zuen Aitziber Irigorasek. "Jakin nahi dugu zer gertatu zen, nork agindu zuen, nork egikaritu zuen. Justizia eskatzen dugu", esan zuen alkateak.

### "Trauma kolektiboa"

Bestalde, bonbardaketaren "trauma kolektiboa" sendatzeko, memoria aldarrikatu zuten Elorrioko ekitaldian. Libe Mimenza izan zen aurkezlea, eta erasoaren egunean bizitako "izua eta terrorea" hurrengo belaunaldiei ulertarazteko modua "lekukotzak" direla adierazi zuen.



# “Korrikaren 2. edizioan, lau ordu berandu heldu ginen Donostiara”

Korrikaren hasierako sasoi zail eta ameslarietan ibili ziren Ibon Aroma eta Kepa Bengoa



Durangon batu dira solasaldirako Aroma eta Bengoa.



Bengoa, eskuman, duela urte biko Korrikan lekukoa eramaten, lankideekin batera.

**DURANGALDEA** M. Onaindia

**Otxandion lehen pausoak eman eta gero, gaur berriro sartuko da Korrika Durangaldean. Edizio honetan sortzaileak omenduko dituzte, eta hasierako sasoi hartan ibilitakoak dira Ibon Aroma durangarra eta Kepa Bengoa abadiñarra. Eurei aparte, Korrikan parte hartzen duten lagun guztiei eskerrak eman dizkie AEK-k.**

**Korrikak sentsazio hunkigarriak ekartzen dizkizue.**

**K.B.:** Hunkitu egiten nau Korrikak, tristetzeraino. Aurrekoan ere ez joatekotan egon nintzen, tentsioagatik. Akaso lehengo sasoiak gogoratzen dizkidalako, gogorrak izan ziren. Ilusioa ere bazegoen, gauza paregabea zen.

**I.A.:** Bai, sasoi gogorra zen. Gainera, orain baino jende gutxiago zebilen lanean.

**K.B.:** Lehenengo Korrikan, eraman genuen babes bakarra Gurutze Gorria izan zen. Guk biok gauez guardia egiten genuen Bilbon, AEK-ko bulegoan, euren irratitik noiz deituko itxaroten, zerbaitetan laguntzea behar bazen edo. Gainera, kilometro batzuetara jendea eraman behar zen. Zerbaitek huts eginez gero, Bizkaiko bulegora deitzen zuten.

**Zergatik sortu zen Korrika?**

**K.B.:** Premia bati erantzun bat bilatu behar zitzaion. Helduak euskalduntzeko presa zegoela ikusten genuen, ez zegoela dirurik, eta euskarari balioa eman behar zitzaiola. Koordinakundea Bizkaian eta Gipuzkoan sendo zegoen, baina beste herrialdeetan indartu egin behar zen. Euskal Herria korrika lotzea otu zitzaion talde bati, zerbait transmitituz. Lehen lekukoa Remigio Mendibururi eskatu genion; zabaltzekoa egin zuen, eta mezu bat sartzea pentsatu genuen. Baina, Sakana aldean galdu egin zen. AEK-k beste testu bat zeukan prest amaierarako, eta horixe irakurri zen bakarrik. Hamargarren ediziotik aurrera, Juan Gorritiren lekukoa erabiltzen da.

**Horrelako esperimentu bat lehen aldiz egitea erronka itzela da.**

**K.B.:** Lehen edizioan beldurra genuen ordutegiagaz, eta amaitzean lasaitua hartu genuen. Bigarrenean, ostera, lau ordu berandu heldu ginen Donostiara.

**I.A.:** Hasieran beti egon izan zen beldur eta zalantza hori. Normalean gauez aurreratzen zen denbora. Pentsatzen dut hogeigarren edizioan dagoeneko beldur horiek gaindituta egongo direla!

**Lehen Korrika abenduan egin zen, ezta?**

**K.B.:** Bai, azaroaren 29tik abenduaren 7ra egin zen. Guk eguraldiari begiratu ere ez! [barrez]. Euskaltzaindiak *Esan bai euskarari* lema zeukan, eta guk, *Zuk ere esan bai euskarari* atera ge-





nuen. Sorpresa handi bat izan zen, ez genuen horrelako arrakastarik espero. Joseba Kanpo, Urtza Errasti, Julen Kaltzada, Natxo de Felipe... ziren talde eragilekoak.

**Zuek biok, zelan hasi zineten istorio honetan?**
**I.A.:** AEKn lanean geunden ordurako, Kepa Bilbon eta ni Durangon. Irakasle ginen, baina eraketako ardurak burutzen genituen. Durangaldean, taldeak egiten genituen lanerako. Kilometroak saldu, enpresetara diru eske joan...

**Non dago Korrikaren arrakastaren giltza?**
**K.B.:** Korrikan guztiok daukagu gure lekutxoa; lekukoa daraman talde batean bazaude, partaide sentitzen zara. Hori da Korrikaren arrakastaren gakoa. Gaur, adibidez, Gestamp Bizkaia enpresatik 12 lagunek hartuko dugu lekukoa. 153 langilek lagundu dute lekukoa erosten. Korrika hogeigarren ediziora ailegatu bada, gauzak ondo egin direlako da. Ahalik eta jende gehiena partaide egitea da, ahalik eta mezu zabalena hedatuz.

> *“Hogeigarren ediziora ailegatu bada, gauzak ondo egin direlako da”*

**AEK-k zelako baliabideak zituen zuen sasoian?**
**K.B.:** Gure garaian, ez geneukan ezelako azpiegiturarik, eta ikaslez gainezka genbiltzan. Kalean ere egin genituen saioak, gure egoera erakusteko. Durangon 300 lagunetik gora zebiltzan gau eskoletan, eta Durangalde guztian 700 bat. Alfabetatzeak egundoko indarra zeukan.
**I.A.:** Ikasleak sakabanatuta geneuzkan: Jesuitetan, Pinondon... Abantaila bat zegoen, ikasleak asko inplikatzen zirela.
**K.B.:** Ikasleen %50 militanteak ziren. Klaseetaz aparte, lan piloa egiten genuen kalean.

**Aurten non hartuko duzue Korrika?**
**K.B.:** Trañako zubi gainean hartuko dugu, eta Astola sarreraraino joango gara. Neuk eramango dut lekukoa, sortzaileak omenduko direlako.
**I.A.:** Nik ez dut lekukoa hartuko, baina Zornotzan sartzeko asmoa dut.
**K.B.:** Zornotzatik arineketan?
**I.A.:** Bai. Andreak eramango nau, eta handik etorriko naiz. Durangoraino.

**20. Korrika**
DURANGALDEKO ORDUTEGIA

- Zornotza **16:59**
- Iurreta **18:21**
- Durango **18:46**
- Abadiño **19:19**
- Atxondo **19:53**
- Elorrio **20:15**
- Berriz **21:00**
- Zaldibar **21:29**
- Mallabia **21:55**



Aurreko edizioan euripean egin zituzten kilometro asko.

# 100 urteko Victoria Amezuak lekukoa hartuko du Berrizen

## Amezua: “Oso pozik nago, ilusio handia egiten dit lekukoa eramateak”



Miren Iturri AEK-ko kidea Victoria Amezuari petoa ematen, gaurko.

**DURANGALDEA** M.O.
Korrikak utziko dituen une magikoetako bat gaur biziko da Berrizen. 100 urte dituen Victoria Amezuak hartuko du lekukoa, herriko azken metroak egiteko, Zaldibarrera sartu aurretik. Bera jaio zen baserri parean hartuko du lekukoa. Ez dago urduri. “Urduri ez, oso pozik nago, ilusio handia egiten dit lekukoa eramateak. Ez dut sekula eraman. Korrika asko gustatzen zaidalako noa”, aitortu du Amezuak. “Hemen, baserri parean hartu behar dut, eta esaten didaten lekuraino joango naiz. Zaldibarreraino ez, asko da eta”, esan du ekainean 101 urte beteko dituen andreak.

Animoz ederto dabil, eta buruz argi. “Ibiltzeko ondo nago. Hobeto ezin egon, daukadan urteekin!”, dio irribarrez. AEK-ko Miren Iturrik ekarri dio etxera petoa; ez zaio estiloa gustatzen, baina jantziko du. “Ez dit grazia handirik egiten. Baina eraman beharra dago, eta pozik egingo dut, gainera”.

> “Hemen, baserri parean hartu behar dut, eta esaten didaten lekuraino joango naiz”

**Gaztetan, euskaltzale**
Berrizen ezkondu, eta duela 50 urte inguru Lizarrara (Nafarroa) joan zen bizitzera senarragaz. “Gaztetan oso euskaltzalea izandakoa naiz. Alde guztietara joaten ginen autobusean, eta, horregatik, omenaldia ere egin ziguten”. Lizarran euskarak hobera egin duela igarri du. “Lizarran orain kalean entzuten da euskaraz. Ikastolan ere ume asko dabil”. Berak ere euskarari hauspoa emateko aukera edukiko du gaur, lekukoa hartuta.




Durangaldeko Gure Esku Dago taldeko kideak Abadiñoko Gerediaga auzoan dagoen Salbadore ermitaren parean, eguaztenean.

# Galderak erabakita, azken txanpan sartu dira maiatzaren 7ko galdeketak

## Herri kontsulta egingo duen herri bakoitzak bere galdera propioa erabaki du

**DURANGALDEA** M.Zuazubiskar

Hilabete falta da maiatzaren 7a heltzeko. Egun horretan herri galdeketak egingo dituzte Euskal Herriko 100 bat herri eta eskualdetan. Baita Durangaldean ere: Durangon, Zornotzan, Elorrion, Abadiñon eta Zaldibarren, hain zuzen. Galdeketa batek galdera bat behar du eta dagoeneko erabaki dituzte. Herri bakoitzak bere prozedura propioa erabiliz aukeratu ditu. Durangaldeko Gure Esku Dagok horien berri eman du asteon. Abadiñoko Gerediagako ermita aukeratu zuten horretarako, eskualdeak zuen erabakigunea irudikatzen duen tokia.

Galderak iragartzeaz gainera, herrietan egiten ari diren lanaren berri ere eman zuten. Esaterako, gizarteko askotariko eragileen atxikimenduak batzen lan handia egiten ari dira. Horren adibide da, esaterako, Elorrion udaleko alderdi guztien babesa lortu duen udal adierazpena. Edo Zornotzako eta Durangoko udaletan dauden zinegotzi askok, herritar lez, galdeketari erakutsi dioten babesa. Abadiñon gaur egungo eta iraganeko zinegotziak, norbanako lez, argazki berean batuko dituen ahalik-eta deialdi zabalena prestatzen ari dira. Zaldibarren, berriz, mozio baten bidez eskatuko diote udalbatzarrari, galdeketa zilegia eta demokratikoa dela adierazteko. Baina atxikimenduak ez dira eremu politikora bakarrik mugatzen. Kultur eta kirol arloetara eta langile mugimenduetara ere zabaldu dituzte.

Atxondon ere Gure Esku Dago taldea sortu eta herri galdeketa egingo dute. Galdeketa hori ez da maiatzaren 7an izango, baina “ilusioz lanean dabiltza”, eta prest daudenean iragarriko dute data, azaldu zutenez.

### MAIATZAK 7: GALDERAK

**DURANGO**
- Bere etorkizuna modu librean erabakiko duen euskal estatu bateko herritarra izan nahi duzu?

**ZORNOTZA**
- Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra izan?

**ELORRIO**
- Euskal estatu burujabe bateko herritarra izan gure dozu?

**ABADIÑO**
- Nahi al duzu euskal estatu burujabe baten herritarra izan? /
- BAI aukeratu baduzu: Nahi al zenuke euskal estatu hori independentea izatea?

**ZALDIBAR**
- Nahi duzu Euskal Herria independentea izatea?

# Elkartasunez betetako kilometroak Mongolian

## Elkartasuna bultzatzeko errifak salgai eskualdean

**DURANGALDEA** M.Zuazubiskar

Solidaritatez betetako kilometroak dituzte aurretik Koikili Lertxundik, Zigor Iturrietak eta beraiekin batera Helmugak proiektua osatzen duten hainbat kirolarik. Abadiño eta Eibarko *Forum Sport* denden eta *Alzola Basque Water*en laguntzagaz, La Otra Miradak Mongolian zabaldu duen aniztasun funtzionaleko eskolari lagunduko diote hainbat kirolari bizkaitarrek.

Mongoliako aniztasun funtzionaleko eguneko zentroari laguntzeko, zenbait ekintza antolatu dituzte Helmugak proiektuko bultzatzaileek. Alde batetik, apirilaren 12an ura banatuko dute Eibarko eta Abadiñoko dendetan, eta, bestalde, euro baten truke errifak salduta, hilabete bukaeran futboleko bi kit zozkatuko dituzte.“Jendeari gonbita egiten diegu ekintzetan parte hartzeko”, adierazi dute *Forum Sport*eko kideek.

“Gure proiektuak helmuga solidario bat du, eta taldeak parte hartuko duen zenbait lasterketatan jendeari laguntzea izango dugu helburu, kirola, euskara eta natura sustatuz”, adierazi du Koikili Lertxundik.

Bestalde, La Otra Mirada elkarteko Susana Lorenzok “oso pozik” daudela adierazi du, proiektu honetan jasotako diruagaz duela hiru urte sortzen hasi ziren eskolari jarraipena emango baitiote.


Manoli Morote, Olatz Gil, Koikili Lertxundi eta Susana Lorenzo

# Andra Mari kalea oinezkoei begira egituratuko dute

**MAÑARIA** J.D.

Andra Mari kaleko eremua berregituratzeko asmoa dauka udalak. Irizpide nagusia oinezkoei autoen aurrean lehentasuna ematea izango da. Oinezkoentzat erosoagoa den gunea sortu gura dute. Proiektuak 100.000 euro inguruko kostua izango du eta hainbat lan aurreikusten ditu. Jaurlaritzan diru-laguntza eskaria egin dute, eta orain erantzunaren zain daude, behin betiko proiektua marrazteko.









# Berriro urbanizatuko dute San Migel kalea, 1.276.000 eurogaz

Lanak aurten hasi gura dituzte, azaroan, eta 2018ko udaberrirako amaitu




Lanen ostean San Migel kalea zelan geratuko den erakusten duen irudia.

**ZORNOTZA** J.Derteano
Osasun Zentro pareko biribilgunetik udaletxe ondoko biribilgunerainoko zatian izango dira lanak. Aurtengo azaroan hastea eta 2018ko udaberrian amaitzea da asmoa. 1.276.000 miloi euro gorde dituzte proiektua gauzatzeko. Kaleko alde batean dagoen arkupea argiztatu egingo dute puntu beltzak ekiditeko, eta barrualdeko eta kanpoaldeko zorua maila berean parekatuko dituzte orain dagoen koska kenduta. Sabaian eta arkuetan ere egitura berriak jarriko dituzte. Taxi geralekua Gudari kaletik udaletxe parera mugituko dute, zakarrontziak lurpean sartuko dituzte eta beste zebrabide bat jarriko dute Luxury tabernara dagoen plazara daraman tunelaren parean.

Proiektua EAJren eta PSEren aldeko botoekin onartu zuten azken udalbatzarrean. EH Bilduk eta Hiri Ekimenak kontra bozkatu zuten, diru hori erabiltzeko beste lehentasun batzuk ikusten dituztelako.

## Martinez, Ametx erakundeko presidente aukeratu dute

**ZORNOTZA** J.D.
Mitxel Etxebarriak EAJko zinegotzi kargua utzi ostean, Luciano Martinez ordezkoak lehen udalbatzarra izan zuen joan zen barikuan. Zinegotzi kargua hartu zuen lehenengo. Gero, EAJk bera proposatu zuen Etxebarriaren ordez Ametx Erakundeko presidente izateko. EH Bilduk, Hiri Ekimenak eta PSEk ez zuten hautagairik aurkeztu. Bozketan, Martinezen hautagaitzak bosto zuriak baino baiezko boto gehiago lortu zituen. Ez zen ezezko botorik izan. Ondorioz, aurrerantzean Ametx Erakundeko presidentea izango da.



Luciano Martinez.

## EAJk errepideak konpontzen hasteko eskatu dio EH Bilduri

**ELORRIO** M.Z.
Herriguneko zein landa inguruko errepideak "hondatuta" daudela-eta konponketa lanekin hasteko eskatu dio Elorrioko EAJk gobernu taldeari.

Oposizioak jakitera eman duenez, konponketa lan hauetarako aurreikusi den aurrekontu "eskasiak" eragin du errepideak kaltetzea.

Hurrengo urteko udal kontuetan atal horretarako 40.000 euro bideratzea proposatu dute

Egoera hobetzeko asmoz, Eleizalde eta Goietako errepideak eta San Agustinerako irteera konpontzea, errepideen egoerari buruzko azterketa bat garatzea, inbertsio plan berezia burutzea, eta, azkenik, udal kontuetan atal horretarako 40.000 euro jartzea proposatu diote udalari.

## Afganistango emakumeen argazkiak

**ZALDIBAR** I.E.
*Emakumeak.Afganistan* argazki erakusketa ikusteko aukera egongo da, apirilaren 20tik 29ra, Zaldibarren. Gallastegi burdindegia zegoen lokalean (Euskal Herria kaleko 24. zenbakian) atonduko dute Gervasio Sanchez eta Mónica Bernabé argazkilarien 40 argazki biltzen dituen erakusketa hori. 2009 eta 2014. urteen artean egindako argazkiak dira bildumakoak, Afganistango emakumeak protagonista dituztenak.

# Hitzarmen bidez zehaztu dute zelaiaren erabilera

Vulcanok lehentasuna du, mantentze-lanen truke



Aurreko hareazko zelaiaren zati bat hartzen du belar artifizialeko berriak.

**OTXANDIO** J.D.
Udalak eta Vulcano futbol taldeak belar artifizialeko zelaiaren inguruko hitzarmen bat sinatu dute. Vulcanok lehentasuna izango du zelaia bere entrenamenduetarako erabiltzeko. Zelaiaren mantentze-lanez eta garbitasunaz ere futbol taldea arduratuko da. Zelaia ez ezik, ondoko frontoi azpian dauden eta entrenamendu ostean erabiltzen dituzten aldagelak ere garbituko dituzte.

Durangoko Tabira futbol-zelaitik ekarritako belar artifiziala denbora luzez egon zen zelai ondoan pilatuta, harik eta iaz jarri zuten arte. Udalak enpresa bat kontratatu zuen horretarako. Aurretik bertan zegoen hareazko zelaiaren zati bat hartzen du belar artifizialdun gune berriak. "Entrenamenduak egiteko ez dugu gehiagorik behar", dio Vulcanoko Jabi Axpek. Aurretik, hareazko zelaian entrenatzen ziren. Aldea igartzen dela eta orain erosoago eta hobeto dabiltzala onartu du.

### Ateak Lemoatik

Ateak Lemoatik ekarri dituzte, eta dagoeneko jarrita daude. "Lemoa futbol klubagaz hartu-eman ona izan dugu beti, eta haiek zelai berria egin zutenean lau ateak eman egin zizkiguten", argitu du Axpek. Vulcanoko arduradun eta jokalarien hurrengo lana zelaiko marrak pintatzea izango da.











Egurrezko estalkia jartzea aukeratu zuten iazko bozketan parte hartu zuten herritarrek.

# Ekainean hasi gura dituzte anfiteatroa estaltzeko lanak

## Udalbatzarrean baldintza-orria onartuta, lehiaketa publikoa abiatuko dute

**MALLABIA** Joseba Derteano
Mallabiko anfiteatroa estali eta birmoldatuz, aisialdirako gune bat sortzeko asmoa aurrera doa, apurka. Joan zen eguazteneko udalbatzarrean, baiezkoa eman zioten proiektuan deskribatutako obren kontratazio espedientea onartzeko proposamenari. EH Bilduk eta EAJk aho batez hartu zuten erabakia.

Proiektua gauzatzeko baldintza-orria prest dago, eta orain lanak esleitzeko prozedura hasiko dute, lehiaketa publiko bidez. Udalaren asmoa anfiteatroa birmoldatzeko lanak "ekainean" hastea dela adierazi du Aitor Agirre Mallabiko alkateak. Hiru hileko egikaritze epea izango du eta dena bere bidetik badoa, negua heltzen denerako amaituta egongo da. Proiektua gauzatzeak 284.811 euroko inbertsioa (BEZa barne) eskatuko dio udalari.

Anfiteatro berriak umeentzako jolasak zein adinekoentzako guneak izango ditu. "Belaunaldi anitzetako herritarren bilgune izatea gura dugu", dio Agirrek.

Espazio berri horren egitura erabakitzerako orduan, herritarrei galdetu zieten. Iazko ekainean bi ereduren artean hautatzeko aukera eskaini eta 75 herritarrek eman zuten botoa. Gehienek egurrezko estaldura aukeratu zuten.

# Bi txakur "larri" daudela salatu du Durandogek

## Ustez, orain, etxera eraman dituzte txakurrak

**ATXONDO** M.Zuazubiskar
Atxondoko bi txakur "larri" daudela salatu zuen Durandog elkarteak joan zen barikuan. Elkarteko kideek jakitera eman zutenez, animalien jabeek txakur bat auto batean giltzapetuta zeukaten, eta bestea abandonatutako etxe batean.

"Animalienganako tratu txar baten aurrean gaude. Animaliak ezin dira giltzapetuta eduki; beraien beharrak dituzte", esan dute Durandogekoek. "Ertzaintzak jakitera eman zigunez, txakurrek txipa dute eta paper guztiak dituzte; beraz, beraiek ezin dezakete ezer egin", esan dute mugimenduko kideek.

Ertzaintzak egoera ikusi ondoren, animalien jabeek txakurrak beraien bizilekura eraman zituztela uste dute mugimenduko kideek. "Ziurtatu ezin dugun arren, badirudi, orain, txakurrak etxean dituztela. Hala ere, herritarrei deia egiten diegu zerbait arraroa ikusten badute egoeraren berri emateko", gaineratu dute.

Horrez gain, txakurrak berriz ere "larri" ikusten badituzte, udaletxean salaketa jartzeko eskatu diete herritarrei.

# Herritarrek esan dute non erabili 25.000 euro

## Parte-hartze bidezko aurrekontua egin dute aurten



Arandia eta Santa Apolonia arteko bidegorriaren argiztapena hobetuko dute.

**IURRETA** Aitziber Basauri
Herriko elkarteen erabilerarako eskura dagoen materiala hobetzera eta Arandia eta Santa Apolonia arteko bidegorriaren argiztapena hobetzera bideratuko dituzte herritarren erabakipean jarritako 25.000 euroak. Iurretako Udalak aurreneko aldiz jarri du martxan parte-hartze bidezko aurrekontua. 20 bat herritarrek parte hartu dute otsailaren 14an eta martxoaren 14an egindako foroetan.

Parte-hartze izaerako aurrekontuen bidez, herritar guztiek har dezakete parte udal aurrekontuaren eraketan, herritarrak "protagonista aktibo" bilakatuz eta "hausnarketa aktiboa eta elkartasuna sustatuz", udal arduradunen esanetan. Aldi berean, "beharrizan errealentzako irtenbideak bilatzen dira eta administrazioaren eta herritarren arteko komunikazioa hobetzen da", gaineratu dutenez.

Udalak lehenengo esperientzia honen balorazio positiboa egin du, eta hurrengo ekitaldietan ekimenari jarraipena emateko asmoa dauka.

### Jaiak iragartzeko kartel lehiaketa martxan da

**BERRIZ** M.Z.
San Pedro eta Santa Isabel jaietako kartel lehiaketa martxan da. Udalak kaleratutako oinarrietan azaldu dutenez, adin guztietako pertsonek parte hartu dezakete lehiaketan. Lanak apirilaren 28a baino lehen udal liburutegian aurkeztu beharko dira, eta kartel lehiaketako irabazlearen berri maiatzaren 19rako emango dutela jakinarazi dute. Irabazleak 400 euroko saria izango du.

### Berrizko kirol zerbitzuetan, prezioak gora

**GARAI** M.O.
Berrizko kirol zerbitzuen prezioak gora egingo du garaitarrentzat. Orain arte, berriztarrek lez ordaintzen zuten, adibidez, kiroldegia erabiltzearren. Baina Berrizko Udalak araua aldatu du osoko bilkuran, eta hemendik aurrera kanpotarrek lez pagatuko dute Garaikoek. Herritar horiei zelan lagundu aztertzen dabil udala, araudi berri baten bidez, igoerarik ez izateko.






# Eskolarako bidea bizikletan, oinez edo patinetean egiteko ekimena

Oinezbusa ekimena ipini du martxan Zelaietako eskolako guraso elkarteak. Umeak eskolara oinez, bizikletan edo patinetean joatea bultzatu gura dute



Behin-behineko geltoki eta ordutegiagaz ipini zuten martxan, joan zen astean, Oinezbusa.

**ABADIÑO** Itsaso Esteban

Herri eskolako guraso elkarteak bultzatuta, joan zen astean ipini zuten martxan umeak eskolara oinez, patinetean zein bizikletan joatea bultzatzea helburu duen Oinezbusa ekimena. Behin-behineko geltoki eta ordutegiagaz hasi dira, eta umeek zein gurasoek egiten dituzten ekarpenekin, horiek egokitzen joatea da ekimenaren bultzatzaileen asmoa. Proiektuak asteotan izaten duen erantzuna jaso eta egokitzapenak egin ahal izateko beraien balorazioa eskatuko diete, astero, Lehen Hezkuntzako umeei. Koordinatzaileen berbetan, lehen bi asteetan oso harrera beroa egin diote umeek proposamenari.

Epe luzera, eskolako ume eta gurasoen ohituretan eragin gura dute Oinezbusaren bultzatzaileek: eskolarako eguneroko bidean mugikortasun iraunkorra eta ohitura osasungarriak sustatu. "Umeak kalean modu seguru eta autonomoan ibili ahalko diren" auzo bilakatu gura dute Zelaieta, "umeen herri". Edu Ogando eta Bea Gonzalez dira ekimenaren koordinatzaileetako bi, eta, diotenez, "orain gertatzen den bezala eskolan eta parkean bakarrik izan barik, umeak herriko txoko guztietan presente egotea" gura dute.

### Hainbat tailer

Iaztik, hainbat ekintza antolatu dituzte umeek eta gurasoek Oinezbusagaz bat egitera animatzeko. Duela aste bi, patineteak eta bizikletak apaintzeko tailerra egin zuten, adibidez, eta segurtasunari eta zirkulazio arauei buruzko ikastaro bat jaso zuten zapatu goiz baterako antolatu zuten bizikleta martxan parte hartu zutenek.

## Probalekuaren 50. urteurrena ospatzeko txapelketa

**ABADIÑO** J.D.

Sei idi-buztarri lehiatuko dira Abadiñoko udal probalekuaren 50. urteurrena ospatzeko udalak biharko antolatu duen txapelketan. San Blas azokako probetan marka onenak egin zituzten idi-buztarriak ekarriko dituzte, eta udalak 8.100 euro banatuko ditu irabazleen artean. Probalekua "Abadiñoko historian mugarri" izan dela, eta "izaten jarraituko duela", adierazi du Navarro alkateak, prentsa oharrean.

## Bizileku tasatuak egiteko baldintza orria eztabaidagai

**IZURTZA** J.D

Udalak 12 bizileku tasatu egin gura ditu Gaztelekuaren parean dagoen belardian. Horretarako, kontratazioerako baldintza orria egin du eta gaur eguerdiko udalbatzarrean bozkatuko dute. Aurrera irteten bada, lehiaketa publikoaren prozedura hasiko dute. Udalbatzarreko beste puntu bat udal bizileku tasatuak arautzeko ordenantza hasieraz onartzea da.

### SEI HANKAKO MAHAIA

**DANI MAEZTU PEREZ**
EH Bildu



**Zapatuko zapatak lokaztuta**

Joan zen zapatuan zapatak lokaztu zituzten 20 bat durangarrek. Aitzurra, palak eta bedarra mozteko tresnak eskuetan hartu eta Etxezarreta parke publikoko ateari kandadua kendu zioten, parkea atondu eta berriro herritarrei irekitzeko. Zapatuko zapata lokaztuekin euripean lanean. Udal gobernuak (PNV/PSE), zapatak zikindu barik, udaltzaingoa bidali zuen hurrengo egunean berriro parkea ixteko.

Badaude egon alderdi batzuk ez direnak kaleko lokatzetan sartuko, lokatzekin kalean zikintzea herria egitea den arren. Aldiz, ederto zapaltzen dute udaletxeko bazter batzuetan dagoen lokatz beltz eta zikina, argazki eta prentsaurrekoetan lehenak heltzeko bada. Lokatza zapaldu, argazkietan ateratzeko, hori da eredua. PPko zinegotzia salatua izan da indarkeria matxistarengatik, eta hor udal gobernuak ez du nahi izan korrika egin eta hitzetatik ekintzetara pasatu. EH Bilduk akats eta errakuntzak ditu, bai, baina saiatzen gara praktikara eramaten esaten duguna.

Argi daukat Fran Garatek dimititu egin behar duela eta bera dela auzi honetan erantzule bakarra. Baina instituzioetatik gai honetan eredugarriak izateko kapazak ez bagara, matxismoaren diskurtsoa elikatzen eta bere hegemonia hauspotzen egongo gara. Zapatak lokaztu behar dira kalean, udaletxean eta toki guztietan; eta lanean lokaztu behar ditugu, ez argazkietan.

### DURANGALDEA ASTEON

## Etxebarri jatetxea munduko 6. onena da

**ATXONDO >** Restaurant aldizkariaren Munduko 50 Jatetxe Onenen Zerrendan goiko postuetan kokatu dute Bittor Arginzonizena Etxebarri jatetxea. Eneko Atxa zornotzarraren Azurmendi jatetxea 38. lekuan ipini dute. Aurten ere 50 onenen artean sartzea lortu dute, eta ez da izan lehenengo aldia.

## San Isidro kaleko bidea asfaltatu egingo dute

**ZORNOTZA >** San Isidro kaleko bidea asfaltatu egingo du udalak. Andra Mari ikastolatik hasi eta biribilguneraino, apirilaren 10ean eta 11n burutuko dituzte lan horiek. Asfaltatu behar diren lekuetan dauden ibilgailuak kentzeko eskatu die udalak auzokideei. Egokituko diren guneetatik igaro beharko dira.

## Seme-alabekiko tratua lantzeko ikastaroa

**IURRETA >** Seme-alabekin hartu-emana zelan landu ikasteko ikastaroa antolatu dute guraso eta lehen mailako hezitzaileentzat. Euskarazkoak apirilaren 26 eta 27an eta maiatzaren 4an dira, Ibarretxe kultur etxean. Izen-ematea Ibarretxen, eta *kultur-etxea@iurreta.eus* helbidearen bidez egin daiteke, hilaren 20ra arte.

### IRITZIA

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

**DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

## Pulla-Azkarretaren aldeko apustua

Elorrioko alkate zen Niko Morenok 2002. urtean saldu zizkion Sprilurri Pulla Azkarretako lurrak, 6 milioi eurotan, bertan industrialde bat eraikitzeko asmoz. Urte asko pasatu dira, baina proiektuak geldirik jarraitzen du Auzo Koordinakundeak jarri dituen helegiteengatik eta EH Bilduren konplexuengatik.

Proiektu honi lerro batzuk eskaini nahi dizkiot, benetan ilusionatzen nauelako eta sobera arrazoi daudelako honen alde egiteko: lanpostuak sortuko ditu eta zerga bilketa handitu; Sprilurrek bertara etorriko diren enpresak finantzatuko ditu, diru bermerik eskatu gabe; jadanik badagoen industrialde baten ondoan eraikiko da eta modu errealista batean dimentsionatuta dago; lurren salmentengatik 6 milioi euro jaso zituen udalak, ia urte guztiko aurrekontuaren beste. Prest al gaude diru hori bueltatzeko? Ez dago modurik. Ordezkari politikook ia aho batez babestu dugu proiektua; 13 zinegotzitik 12k. Bi partaidetza prozesuren ekarpenak jasotzen dira proiektuan.

Gaur egun ez da lekurik gelditzen enpresentzat Elorrion eta gai honetaz dakitenek beti dioskue Bizkaian lur gehiago behar dela industriarentzat. Uxatu ditzagun, beraz, gai honekiko dauden beldurrak eta egin dezagun aldeko apustu irmo bat.

Mikel Arruabarrena (Elorrioko EAJko zinegotzia).

Berbaz

Uxune Martinez Mazaga | Euskampus Fundazioko zabalkunde zientifikorako arduraduna | Garai, 1969

# “Twitter lanerako eta egunerokotasunerako termometroa da; oso baliagarria”

Txiolari arrunten hamar saiatuenen artean dago, twitterren euskarazko jardunaz CodeSyntaxek egindako azterketaren arabera

> BERBAZ Aitziber Basauri

**Twitterren euskaraz argitaratzen diren mezuen neurketa egin du CodeSyntax enpresak, 2016an twitterren aritutako 15.000 txiolariren txioak aztertuz. Guztien artean 6,2 milioi txio bota dituzte; %42 euskaraz. Euskaraz txiokatzen aritzen dira 13.000-15.000 txiolari inguru. Uxune Martinez txiolari aktibo arrunten hamar lehenengoen artean dago.**



**Txiolari saiatuen lehenengo hamarren artean zaude. Harritu egin zaitu?**
Bai, ez nuen inondik inora espero. Hainbat jenderen artean, eta nik baino askoz jarraitzaile gehiago dituztenak asko, ni hor egotea. Sorpresa bat izan zen.

**Noiztik twitterren? Zenbat denbora ematen duzu?**
Orain lauzpabost urte hasi nintzen lanari lotutako kontu profesionalak kudeatzen. Ez nuen kontu pertsonalik, izateko asmorik ere ez. Baina, zabalkunde zientifikoan arituta, kontraesana iruditzen zitzaidan eta kontu pertsonala zabaldu nuen. Lanari lotuta hiruzpalau ordu ematen ditut. Modu pertsonalean, berriz, twitterra begiratzea da egunean egiten dudan lehenengoa; bertatik informatzen naiz. Iturri nagusia dut eta goizean goiz ordu erdi bat eskaintzen diot. Beste horrenbeste gero ere.

**Informazio iturria da twitter?**
Batetik, gizarteak zeintzuk kezkak dituen, zertan jartzen duen arreta ezagutzeko aukera ematen dit. Lanerako eta egunerokotasunerako termometroa da, oso baliagarria. Bestetik, egiten duguna zabaltzeko bozgorailua da. Ezagutzen ditudan sare sozialetatik eraginkorrena da.

**Eraginkorrena, zein zentzutan?**
Egia da, erabilerari dagokionez, halako gainbehera bat izan duela. *Lurker* asko daude —kontua zabalik dutenak baina ez dutenak erabiltzen—. Asko begiraleak dira; hau da, informazioa jasotzen dute, baina ez dira aktiboak. Hala ere, duen bapatekotasun handiak egiten du horren eraginkor. Gertatzen ari den horrek, pil-pilean dagoen horrek du isla bertan, eta uneoro gertatzen denaren berri izateko aukera ematen dit, hor daudelako hedabideak eta gizarte eragileak. Gainera, gauza berari buruzko hainbat bertsio jaso ditzakezu.

> *“Duen bapatekotasun handiak egiten du horren eraginkor Twitter”*

**Zientzia gizarteratzeko, ezinbestekoak dira sare sozialak?**
Bai. Tradizioz, zientzia gaiek badute halako urruntasun bat. Gizarteak interes bat erakusten duen arren, ez da hurbiltzen. Ematen du gai urrunak, konplexuak, ulertzeko zailak… direla. Gainera, askoren ustez ez daude egunerokotasunari lotuta, zientzia gure eguneroko muina den arren. Argitaratutakoa zabaldu egin behar da: izan ere, ikusi, irakurri edo entzuten ez dena, ez da existitzen. Twitterrek, eta sare sozialek oro har, irakurriak, ikusiak eta entzunak izateko bidea ematen dute. Beraz, erabili egin behar dira. Inor ez zaigu etorriko, geu hurbildu behar gara gizartera. Gainera, *lurker* asko daude —kazetariak, hezkuntzan ari direnak…—.

**Twitterren abantailak aipatu ditugu. Zer du txarra?**
Informazio asko dago eta iragazi egin behar da; zeintzuk diren iturri fidagarriak jakin behar da. Bizitzako beste esparruetan lez, informazio trukea oztopatzen duten *trolak* ere badaude.

**140 karaktere nahikoa dira?**
Bai, nola jardun da kontua. 140 karaktere horiek argazkiekin edo bideoekin osatu ditzakezu, eta *url* edo esteka baten bidez zabaldu daiteke mezua, informazio txikia emanez. Dinamikak berak erakutsi du baietz, posible dela eta nahikoa dela.

> *“Pantailari itsatsita bizi gara askotan. Horren erakusleetariko bat gazteak dira”*

**Codesintaxen azterketaren arabera, iaz 6,2 milioi txio bota ziren, eta %42 izan dira euskaraz. Nola ikusten duzu hau?**
Twitterren gehien bat euskaraz txiokatzen dut nik, ama hizkuntza dut oinarri nagusia. Beste hizkuntza batean egiten dudanean, bertsioak dira. Euskaraz txiokatzen da, asko ari gara, eta esango nuke kasu eta esparru batzuetan gizartean ikusten dena baino nabariagoa dela. Adibidez, kultur gaietan erabilera oso handia da. Ez dut esango hazkunde nabaria egon denik, baina ematen du portzentaje handi bat euskaraz ari garela. Hizkuntzaren ikuspegi osasuntsua ematen du, komunikazio tresna bizi batean gure hizkuntzan normaltasunez elkarkomunikatzea posible dugula.

**Sare sozialak harremanetarako bide nagusietako bat dira. Aurrez aurrekoa aldatuz doa?**
Biak uztartu daitezke. Hala ere, sare sozialek aurrean ez duzunagaz harremanetan jartzeko aukera ematen duten arren—adibidez, Australian dagoen norbaitegaz—, molde batzuk aldatzen ari dira. Bi ahoko ezpata da. Pantailari itsatsita bizi gara momentu askotan. Horren erakusleetariko bat gazteak dira.

**Emakumeek zientzian egindako lana azalerazten duzue Zientzia Kaieran. Durangaldean badugu adibiderik?**
Bai, Luz Zalduegi (Mallabia, 1914-2003) . Euskal Herriko lehenengo albaitaria izan zen eta, Espainian, albaitaritzako ikasketa aurreratuak egin zituen lehena. Emakume oso langilea eta ekina izan zen, eta hainbat kargu izan zituen Espainiako Nekazaritza Ministerioan. Denok ezagutzen dugu Marie Curie, baina badira beste batzuk ere, eta saiatu gara Euskal Herrian lehenak, aitzindariak, izan zirenak azalerazten.


NISSAN
Innovation that excites
NISSAN INTELLIGENT MOBILITY
NISSAN MICRA BERRIA.
ZURE KONPLIZEA.
NISSAN MICRA BERRIA
HILEROKO 140€ TIK* HASITA
48 kuotatan (140€) | Sarrera 2.931,79€ | UTB %6,17
Azken kuota 6.840€
3 URTEKO MANTENTZEA, BERMEA ETA LAGUNTZA
#TuCómplice
ZATOZ PROBATZERA GAURSA-RA
GAURSA
Arriandi Auzoa, 12 - 48215 - Iurreta - Bizkaia - Tel. 946 205 000
Kontsumo mistoa: 4,4 l/100 km. CO2 isurpenak: 99 g/km.
*PSP gomendatua penintsulan eta Balearretan 14.250,00€ Nissan Micra IG-T 0.9 N-CONNECTA S&S 90CV (66 kW) berriarentzat, Merkaturatze-pack honekin (BOSE(R) PERSONAL(R) audio-sistema, Atzeko Kamera eta NissanConnect). Barne dauzka FAP, garraioa, Nissan Assistance, sustapenaren deskontua eta BEZ. Aplikatutako zergek erosketako unera arte aldaketak izango balituzte, prezioa indarrean dauden zerga-tasa berrien aplikazioaren arabera moldatuko da. Finantzatzeko zenbatekoa 11.318,21€ 49 hilabetetan (sustapen-laguntza barne). Irekitze-komisioa 0,0€. ITN %6,00. UTB %6,17. Sarrera: 2.931,79 €. 140,00€ko 48 kuota eta azken kuota 6.840,00€. Epekako prezioa, guztira: 16.491,79 €. Zordundutako zenbatekoa, guztira: 13.560,00 €. Finantzatu beharreko gutxieneko zenbatekoa: 6.000 €. 24 hilabeteko gutxieneko iraupena. Eskaintzak Auto Pack-a dauka barne (Auto Asegurua 600€ko frankiziarekin + Securplus + Pneumatiko Asegurua) RCIren bidez. Eskaintza ez da bateragarria beste kanpaina batzuekin eta 17/04/30 arte da balioduna, baldin eta eroslearen izenean dagoen erabilitako ibilgailu bat ematen bada eta Espainian Sukurtsala duen Magic Plan de RCI Banque SAren bidez finantzatzen bada. Informazio gehiagorako, joan gertuen duzun Nissan kontzesionariora. Baliteke bistaratutako irudia ez etortzea bat eskainitako ibilgailuarekin.

## PAREAK EGIN

Lotu sukalde-tresna bakoitzari dagokion produktua







1 Fruta eta barazki ugari ikusten da hemen, baina ba al da limoirik ? 2 Eta porrurik ? 3 Zenbat gerezi ikusten dituzu ? 4 Ba al da ur botilarik

## Arrotza

Hemen bada elementu bat gainerakoekin bat ez datorrena, zein da?




## Ezetz asmatu!

Osatu esaera zaharra:



A zer parea ..........................................................

www.plazanbazan.eus

## DOMINOA

Marraztu falta diren irudiak, domino jolas hau zuzena izan dadin.



5 Mermelada egiteko oinarri-oinarrizkoak fruta, azukrea, eta ura dira. Erreparatu marrazkian dauden fruta guztiei eta esan: hemen dituzun poto hauetatik zein ezingo genuke bete ?



Marrubia

Udarea

Mertxika edo melokotoia

Mandarina

Arana

## MARGOTU

Kameleoiek aldartearen arabera aldatzen omen dute larruaren kolorea, normalean. Honek ordea, gordetzeko egingo du. Inguruko koloreak hartuz, kamuflatu egingo da. Zer itxura hartuko du? Margo ezazu.



Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)



# EDERTASUN GIDA



Ana Camarero

## Ezkontza eguna

Oso berezia izan ohi da ezkontza eguna, eta, horregatik, hile batzuk lehenago hasi behar dugu prestatzen eta guztia antolatzen. **Hiru hile lehenago,** azalaren egoera baloratu behar da, ondo hidratatuta eta argiztatuta egon dadin.

**Bekainen** diseinu on bat irregulartasunak zuzentzeko.

**Bizkarra eta bularraldea** ere ez dira ahaztu behar, oso garrantzitsuak baitira.

**Eskuak eta oinak.** Ez da nahikoa azazkaletan kolore polita erakustea. Aurretik ondo zaindu behar dira.

**Begiak.** Begirada elegante eta intentsoa eskaini behar dugu egun horretan. Horregatik, **betileen luzatze** ikusgarriak proposatzen ditugu.

**Makillajea.** Ezkontza eguna heldu da, eta itxura naturala, argia eta ona lortu behar dugu makillajeagaz.

Ana Camarero Estetika Zentroan, ezkongaientzat deskontu bonuak eskaintzen ditugu.



## ILE-APAINDEGIAK







## ESTETIKA ZENTROAK







**Profesionalik onenak zure zerbitzura!**

# Durango klownaren arloko artista, ikasle eta ikusleen bilgune, bosgarren urtez

## Apirilaren 12tik 16ra burutuko dute Topaklown, Durangon. Ikastaro eta emanaldi eskaintza dakar

**> ANTZERKIA** Itsaso Esteban

Urtez urte gora egin du Aste Santu bueltarako San Agustin kulturguneak eta Ganso&Cia konpainiak antolatzen duten Topaklown ekimenak erakarritako jende kopuruak. Aurten ere, ordu gutxiren buruan bete dira eskainiko dituzten ikastaroetan parte hartzeko plaza guztiak: 166 lagunek eman dute izena ikastaroetan, eta beste 45 entzule moduan arituko dira.

Klownaren arloan eskarmentu handia duten estatuko zein nazioarteko irakasleen eskutik, diziplina horren inguruko askotariko ikastaroak jasoko dituzte Topaklown-eko formazio saioetan izena ematen dutenek. Klowna ezezik, antzerki fisikoa eta inprobisazioa ere landuko dituzte, besteak beste.

Ekimenaren "topaketa" izaera azpimarratu dute asteon San Agustin kulturgunean prentsaurrekoa eskaini duten antolatzaileek. Artista, hezitzaile, ikasle eta ikusleen bilgune izan gura baitu Topaklown-ek.

### Bederatzi emanaldi

Aurreko edizioetan bezala, antzerkizale guztientzat prestatutako programazioa ere badakar Topaklown-ek Durangora, apirilaren 12tik 16ra. Bederatzi antzerki emanaldi izango dira egun horietan Durangon; zazpi San Agustin antzoki barruan, eta bi kalean. Emanaldi guztietara joan gura dutenentzat bonu berezi bat atera du Durangoko kulturguneak, 25 euroan.

"Estreinaldi mundial" bi hartuko ditu Durangoko topaketak: Jimena Cavalletti argentinarrak *Mecha show you* lana estreinatuko du, apirilaren 13an; eta 15ean, Fanny Girauden *Juntos* obraren estreinaldia hartuko du San Agustinek. Gainera, Euskal Herrian lehenengoz izango dira ikusgai Les Mouffons murtziarren *Nosferatu in love* eta Pere Hostaren *Open door*.

Ikastaroak eta emanaldiak ezezik, *El clown, un oficio nómada* solasaldia ere eskainiko du programazioak. Munduan umorea ulertzeko dauden modu desberdinez jardungo dira, apirilaren 13an, 16:30ean, musika eskolako hitzorduan.




San Agustin kulturgunean aurkeztu zuten, astelehenean, Durangoko klown topaketaren aurtengo eskaintza.

· Apirilaren 12an, 22:00etan, **Kaput**, San Agustinen.

· Apirilaren 13an,18:00etan, **Mecha show you**, Musika eskola plazan.
19:00etan, **Open door**, Musika eskolako plazatik.
21:00etan, **Cualquiera que nos viera**, San Agustinen.

· Apirilaren 14an, 20:00etan, **Mr. Kebab**, San Agustinen.
22:00etan, **Nosferatu in love**, San Agustinen.

· Apirilaren 15ean, 20:00etan, **Juntos**, San Agustinen.
22:00etan, V. Topaklown Kabareta, San Agustin kulturgunean.

Apirilaren 16an, 20:00etan, **Topaklown ikastaroen erakustaldia**, San Agustin kulturgunean.

# Guggenheim museoan erakutsiko du Karlos Martinezek bere lana

## EAEko 35 urtez azpiko 62 artistaren artean aukeratu dute artista durangarra

**> ARTEA** I. E.

Bilboko Guggenheim museoan apirilaren 10ean zabalduko duten erakusketa kolektiboan erakutsiko du Karlos Martinez B. (Durango, 1982) artistak *La supernova que yo conocí* bere azken lana. Kristalezko laminen gainean esmalte sintetikoekin egindako lanak dira bilduma horretakoak, eta horien bitartez espazioaren, desioaren eta burlaren inguruan dihardu Martinezek. Osasun eta kosmetika arloko osagaiak baliatuta, gaur egungo gizarteko "antsietateen" inguruan egiten du gogoeta.



Artxiboko argazkia. Leire Unzueta

Batez ere eskulturgintzan eta serigrafian jardun izan da orain arte Martinez, eta *La supernova que yo conocí* erakusketa honetarako, elementu piktoriko gehiago baliatu ditu. Egilearen berbetan, eskultura eta pintura uztartzen ditu Guggenheimen erakutsiko duen lanak.

> Esmalte sintetikoekin kristalezko laminen gainean egindako lanak erakutsiko ditu Martinezek

Bilboko Guggenheim museoaren XX. urteurreneko ekitaldien barruan antolatu duten Eginberri programara aurkeztu ziren EAEko 35 urtez azpiko 62 artisten artean hautatu dituzten sei artistetako bat da Martinez durangarra. Maiatzaren 7ra arte, Guggenheimeko 177 aretoan beraien lana erakusteko aukeragaz batera, 1.500 euro ere irabazi dituzte Martinezek eta Xare Álvarez, María Benito, Patrik Grijalvo, Izaro Ieregi eta Zaloa Ipiña bere kideek.

### Bestelako proiektuak

Guggenheim Bilbao museoko erakusketaz gain, Bartzelonan ere beste erakusketa bat du Martinezek ikusgai datozen asteetan. Javier Arbizugaz batera sorturiko *The dark, the mystic, the animate but soulless* erakusketa ipini du Martinezek Blueproject Foundation aretoan, apirilaren 30era arte. Kataluniako hiriburuko arte fundazio horretan artista egoiliarrak izan dira Arbizu eta Martinez, otsailean eta martxoan.

Iaz, Donostia 2016ko programa baten barruan, Nasra Sidi Azman Saharako arte ikasleagaz elkartrukea egiteko aukera izan zuen Martinezek. *Bi + bi* erakusketa sortu zuten errefuxiatuen kanpamentu bateko eta Donostiako egonaldi haietan.



100 bat antzezlek parte hartuko dute Durangoko Pasiñoaren XXIV. edizioan. Argazkian, iazko antzezpenaren partaideak.

# Durangoko Pasiñoaren hiru emanaldi datorren astean, Santa Ana plazan

## Apirilaren 11n, 13an eta 14an izango dira emanaldiak, Santa Anan, 21:00etan

**> PASIÑOA** Itsaso Esteban

Apirilaren 11n, 13an eta 14an egingo dute Durangoko Pasiñoa, 21:00etan, Santa Anan. Ohi bezala, Arco tabernan daude antzezpenerako sarrerak salgai, eta 656 777 321 telefonoan ere egin daitezke erreserbak.

Iaz bezala, Bilboko prozesio batean parte hartzera joango dira Durangoko Pasiñoko 55 partaide, hilaren 12an, eta horregatik ez da egun horretan emanaldirik izango Santa Anan.

Datorren astekoa Pasiñoaren XXIV. edizioa izango da, eta Txema Asategik zuzenduko du. Antzezpenean 100 bat lagunek parte hartuko dute, eta honakoak izango dira pertsonaia nagusiak antzeztuzko dituztenak: Jesusen papera Iñigo Pastorrek egingo du, Fermina Ordoñez izango da Maria, Judasen paperean Fernando Atutxa arituko da, Pedroren eta Herodesen rolak Xabier Aranak beteko ditu, eta Aitor Erdoiza izango da Pilato. Xabier Arana Pasiñoko partaideak azaldu duenez, beste urte batzuetan ere aktore lanetan jardundakoak dira aipaturiko lagun guztiak, eta baita apostoluen, soldaduen, legioko kideen eta herritarren paperean jardungo direnak ere.

> Jesusen pertsonaia Iñigo Pastorrek egingo du, eta Fermina Ordoñez izango da Maria

Duela hilabete hasi ziren entseguekin, Santa Anan, eta herenegun aurkeztu zuten aurtengo edizioa, Kurutzesantu museoan.

> Duela hilabete hasi ziren entseguekin, Santa Anan, eta herenegun aurkeztu zuten aurtengo edizioa

# Txistulari gazteen lehiaketan irabazle

## Durangoko musika eskolako ikasle bi saritu dituzte Euskal Herriko txistulari lehiaketan



Gorka Pagonabarragari eta Iker Sagalari sari bana eman diete.

**> MUSIKA** Itsaso Esteban

Martxoaren 25ean Hernanin jokatu zuten Euskal Herriko txistulari gazteen lehiaketaren XII. edizioan sari bana eskuratu zuten Durangoko Bartolome Ertzilla kontserbatorioko bi ikaslek. Gorka Pagonabarragari lehenengo saria eman zioten, eta hirugarrena Iker Sagalari.

Pagonabarragak bost urtetan eskuratu du txapelketako sari hori, eta lehiaketan parte hartzeko gehienezko adina betetzen duenez, aurtengoa izan da parte hartu duen azken urtea. Sagalak ere parte hartu du lehenago txapelketa honetan; bigarren aldiz aurkeztu da aurten.

Hiru kategoriatan jarduten dira Euskal Herriko txistulari gazteen lehiaketako parte-hartzaileak; 9 eta 12 urte artekoak, batetik, 13 eta 16 urte artekoak, bestetik, eta taldeka parte hartzen dutenak, hirugarren kategorian. Lehiaketako epaimahaia Donostiako, Azpeitiko eta Hernaniko txistulari profesionalek osatu dute.

> Bi saridunek ezezik, musika eskolako beste hiru ikaslek ere parte hartu zuten lehiaketan

Gorka Pagonabarraga eta Iker Sagala saridunek ezezik, Durangoko musika eskolako eta kontserbatorioko beste hiru ikaslek ere parte hartu dute Euskal Herriko txistulari gazteen lehiaketa horretan: Aner Urberuagak, Amaia Sanzek eta Mikel Gonzalezek.

## GEURE DURANGALDEA

**GARAZI ARRIZABALAGA CABRERIZO**
Durangoko museoko zuzendaria



### Ondare maitea

Durangotik bueltatxo bat ematea proposatzen dizuet. Lasai, ez da luzea izango eta.

Lehenengo, Pinondora joango gara eta Astarloaren eskultura ikusiko dugu. Gero, udaletxeko aterpeko Ama Birjinaren eskultura bisitatuko dugu, *Maria de la O* deitzen dioten hori, eta, azkenik, Ezkurdira helduko gara, bertan Frai Juan de Zumarragaren monumentua ikusteko. Zer ote dute hiru hauek amankomunean? Herriko ondareak direla eta oso gaizki tratatuta daudela. Apurtuta, margotuta, zikinduta… Hau ez da Durangon bakarrik gertatzen. Tamalez, herri guztietan daude iturriak apurtuta, hormak margotuta, kobazuloak zikinduta (Sarrimendiren kasuan bezala), etab.

Jendeak ez al daki gure ondarea zaindu eta errespetatu egin behar dela? Gure ondarea gure Historia da eta zaindu egin behar dugu, gure izaera ezagutu ahal izateko.

Eskerrak bestelako pertsonarik ere badagoela, gure herriko Historia zaintzen dutenak eta ikertzen jarraitzen dutenak. Memoria historikoa ikertzen duten Durangaldeko hainbat talde eta Gerediaga Elkartea, besteak beste; Erromara joan eta artxibo, liburu, orri eta letren artean orduak eman eta gero, gure Historiaren datu berriak aurkitu dituzte. Gure iraganaz gehiago jakiteko aukera izan dugu horrela, gauzak argitzeko parada. Gure ondarea zainduz gero aberatsagoak garelako, nortzuk garen ulertzen dugulako. Zeinen garrantzitsua den gure iragana ezagutzea gu geu nortzuk garen jakin ahal izateko. Horregatik, Durangaldetik txango bat egin, eta bertako ondarea hain txarto tratatuta dagoela ikusteak pena ematen dit. Zaindu egin behar dugu, gure zati bat baita.






**AGENDA**

**> FUTBOLA**

**BIGARREN B MAILA (gizonak)**

**Amorebieta - Athletic B**
· Zapatuan, 18:30ean, Urritxen.

**OHOREZKO MAILA (gizonak)**

**Iurretako - Sondika**
· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelaian.

**Zaldua - San Pedro A**
· Zapatuan, 16:15ean, Solobarrian.

**Elorrio - Gallarta**
· Zapatuan, 17:00etan, Eleizalden.

**MAILA GORENA (gizonak)**

**Abadiño - Dinamo San Juan**
· Zapatuan, 16:00etan, Astolan.

**LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)**

**Amorebieta B - Umore Ona**
· Domekan, 15:30ean, Txolonen.

**> ARETO FUTBOLA**

**HIRUGARREN MAILA (gizonak)**

**Presion Break - Goierri**
· Zapatuan, 16:45ean, Berrizburun.

**LEHEN ERREGIONALA (gizonak)**

**Elorrixo Txiki - Mundaka**
· Zapatuan, 16:00etan, Elorrioko udal kiroldegian.

**Mallabia - Ibaizabal**
· Domekan, 18:30ean, Zaldibarko udal kiroldegian.

**> SASKIBALOIA**

**ZILARREZKO LIGA (gizonak)**

**Zornotza S.T. - Avila**
· Zapatuan, 18:30ean, Larrean.

**EUSKADIKO LEHEN MAILA (gizonak)**

**Tabirako Baqué - Atletico San Sebastian**
· Zapatuan, 18:00etan, Landako kiroldegian.

**EUSKADIKO BIGARREN MAILA (gizonak)**

**Tabirako Baqué - Salleko**
· Zapatuan, 16:00etan,Landakon.

**> PILOTA**

**BIHARKO IZARRAK TXAPELKETA**

- **Garcia-Irurita/Anso-Olaizola**
- **Salaberria - Mariezkurrena / P. Etxeberria - O.Etxeberria**
· Zapatua, 17:00, Mallabian.
- **Prado - O.Etxeberria / Larrañaga - Sanchez**
· Apirilaren 13an, 21:15ean

**> KORRIKA**

**IURRETAKO HIRI PROBA**

**Apirilaren 23an.**
· Izen-ematea: bidezabal.org eta kirolprobak.com.

**Kirola**

**Mirari Aldekoa Martinez** | Tabirako-Baque taldeko jokalaria | Iurreta, 1995

# *“Gure zaleak izugarriak dira; beraiei esker lortu ditugu garaipen asko”*

Hamahiru urtez saskibaloian jokatzen dabil Mirari Aldekoa; egun Tabirakon maila gorenean ari da.

**> KIROLA** Maialen Zuazubiskar

**Denboraldia amaitzeko bi partiduren faltan, sailkapen nagusian laugarren postuan daude Tabirakoko neskak. Mirari Aldekoak ondo ikusten du taldea, eta final four-a irabazteko moduan daudela adierazi du.**




**Tabirako Baque taldean gazteenetariko bat zaren arren, urte dezente daramatzazu saskibaloiaren munduan.**
Bizitza erdi baino gehiago daramat saskibaloian jokatzen. Gaztetan eskolan multikirolak izaten genituen. Garai hartan hasi nintzen saskibaloia probatzen. Gustatu, eta hamahiru bat urtez kantxetan nabil, jokatzen.

**Ordura arte, kirol arrotza zen zuretzat saskibaloia?**
Gure etxean futbolerako afizio izugarria zegoen. Ni saskibaloian hasi nintzen arte, gurean futbolaz bakarrik aritzen ginen. Orain, berriz, etxeko guztiak zaletu dira saskibaloira.

**Ama taldeko zuzendaritzan duzu.**
Bai, saskibaloian hasi nintzenean amari kirol hau gustatzen hasi zitzaion, eta egun Tabirakoko zuzendaritzaren parte da. Oraindik saskibaloiaren inguruko gauza batzuk ulertzen ez dituen arren, kirol honen xarmak kutsatu duela esan daiteke.

**Zu zerk erakarri zintuen saskibaloitik?**
Sortzen den giroak, agian. Esaterako, guk Tabirakon giro oso ona daukagu, familia handi bat gara, eta gustura egotea ezinbestekoa da kirol batean aritzeko. Hala ere, aitortu behar dut Juanjo Moreno jesuita izan zela saskibaloiaren munduan sartu ninduen pertsona. Bera Espainiako selekzioagaz jokatutakoa da, eta berari esker nago orain nagoen tokian.

**Aurten kalitatezko pauso bat eman, eta taldeko jokalari garrantzitsuenetariko bat bihurtu zara.**
Urte askotako lanaren fruitua dela esango nuke. Lehen taldera pausoa eman nuenean, kostatu zitzaidan nire lekua aurkitzea. Baina, urteetan gogor lan eginda, eta txarto egiten nituen gauzak hobetuta, pauso bat aurrera ematea lortu dut.

> *“Izugarria izan zen final four-a etxean, gure afizioaren aurrean jokatzea”*

**Azken bi partiduak galdu dituzuen arren, sailkapen nagusian laugarren postuan zaudete. Nola ikusten duzu taldea?**
Taldea ondo dago, baina, azken partidua galduta, denboraldia bigarren postuan bukatzeko aukera galdu dugu, eta horregaz batera, final four-a etxean jokatzeko aukera ere bai.

**Beraz, iaz ez bezala, aurten ezingo duzue final four-a etxean jokatu.**
Matematikoki oraindik aukeraren bat badagoen arren, zail dago bigarren postuan bukatzea. Gure ametsetako bat iaz kiroldegian bizitakoa errepikatzea zen. Izugarria izan zen, etxean, gure afizioaren aurrean jokatu eta garaipena eskuratzea. Oraindik ere, oilo-ipurdia jartzen zait.

**Nolako zaleak ditu Tabirakok?**
Taldeak zale oso onak ditu. Gainera, gero eta gehiago gara. Tabirakoko zaleak izugarriak dira; garaipen asko beraiei esker lortu ditugu. Beraiek ematen diguten indarra ikarragarria da, eta oso harro gaude eurekin.

**Liga bukatzeko bi partidu gelditzen zaizkizue. Zein da zuen helburua?**
Azken esprinta gelditzen zaigu, eta gelditzen zaizkigun partiduak biak irabazi, eta azken bi partiduetako aho zapore txarra kentzeko ordua iritsi zaigula uste dut. Tabirakoko zaleen laguntzagaz eta gogor entrenatuta denboraldia ondo amaitzeko aukera daukagula uste dut.

> *“Taldea oso ondo ikusten dut, eta gainera, oraindik hobetzeko asko daukagu”*

**Nola ikusten duzu taldearen etorkizuna?**
Taldea oso ondo ikusten dut, jokalari onak daude eta oraindik hobetzeko asko daukagu. Gainera, horretan laguntzeko, entrenatzaile bikaina daukagu, Jesus De Vicente. Bere laguntzagaz eta taldean daukagun gogoagaz Tabirako-Baquek mailaz igo dezakeela uste dut.

**Beraz, mailaz igotzeko aukerak ikusten dituzu?**
Bai. Ez dakit hori aurten izan daitekeen, edo datorren denboraldian, baina aukerak baditugu. Denboraldiz denboraldi hobetzen goaz eta taldea azken denboraldietan onenen artean dabil. Beraz, lortu daiteke. Gainera, gure zaleek merezi dute Tabirakok mailaz igotzea.

# Zornotzako Udaberri Klasikoak hamalau talde batuko ditu, etzi

Movistar Team izango da UCI World Tour mailako talde bakarra



Muniketa hiru bider igoko dute, azkenengo biak Ibarruritik. M.Z.

> TXIRRINDULARITZA J. Derteano

Zornotzan Udaberri Klasikoaren 63. aldia lehiatuko dute, domekan. Parte hartuko duten 14 taldeetatik Movistar Team da indartsuena. Talde horretatik iaz klasikoa bigarren tokian amaitu zuen Gorka Izagirre eta Marc Soler etorriko dira, besteak beste.

UCI World Tourreko talde horregaz batera, kontinental -profesional mailako bi (Caja Rural eta Kolonbiako Manzana Postobon Team) eta kontinental mailako beste 11 arituko dira. Nazioarteko taldeei dagokienez, Japoniako, Kuwaiteko eta Boliviako talde banak parte hartuko dute, besteak beste.

Ibilbidea aurreko bi urteetako bera izango da. 2014an Autzaganetik igarotzeari utzi zioten, hango obrengatik, eta oraindik obrak amaitu ez dituztenez, ibilbide alternatiboagaz jarraituko dute. 171 kilometrotan Muniketa hiru bider igoko dute; behin Iurretatik eta birritan Ibarruritik. Lasterketa 09:25ean hasiko da, Nafarroa kalean, eta amaiera 13:35 ingururako aurreikusi dute.

> Muniketa hiru bider igoko dute, behin Iurretako aldetik eta beste birritan Ibarruritik

### Lasterketa bi Durangon

Bestalde, Duranguesa txirrindularitza elkarteak antolatuta, Aitor Bugalloren oroimenezko lasterketa bi jokatuko dira apirilaren 13an. Biak Ezkurditik abiatuko dira. 10:00etan juniorrena hasiko da. 15:15ean Euskaldun Torneoko elite eta 23 urtez azpikoen txanda izango da.

# Paola Muñoz eta Bizkaia Durango Kopako liderrak

Espainiako Kopa garaipen bategaz hasi dute

> TXIRRINDULARITZA J. Derteano

Bizkaia-Durangok indartsu hasi du Espainiako Kopa. Aurtengo fitxaketetako batek, Paola Muñoz txiletarrak, irabazi zuen Nojako proba, eta Mavi Garcia hirugarren sailkatu zen. Taldekako sailkapena ere lortu zuten, Lorena Llamasen bosgarren postuari esker. Aurten Kopan taldekako sailkapena irabaztea dute helburu, eta hori lortzeko bide onetik hasi dira. Bizkaia-Durangorentzat denboraldi berezia da, sortu zeneko 15. urteurrena ospatuko duelako.



Paola Muñoz erdian eta Bizkaia-Durangoko taldea Nojan.



Gurutze Frades Hegoafrikan.

## IronMan bikaina osatuta, munduko txapelketa gero eta gertuago

> IRONMANA J.D.

Proba bikaina osatuta, Gurutze Frades iurretarrak bosgarren amaitu du Hegoafrikako IronMana, eta Konan jokatzen den Munduko txapelketara sailkatu ahal izateko puntu baliotsuak batu ditu. 19. postuan irten zen uretatik, eta bizikletan zein korrika aurkariak aurreratzen joan zen.

## Zamakona eta Azkorbebeitia onenak Arrasate-Udalatx proban

> KORRIKA J.D.

Joan zen asteburuko Arrasate-Udalatx mendi lasterketa Markel Zamakona otxandiarrak irabazi zuen gizonetan eta Oihana Azkorbebeitiak emakumeetan. Gizonetan beste otxandiar bat geratu zen bigarren: Aitor Ajuria. Azkorbebeitiak denboraldiko seigarren garaipena lortu zuen.



Zamakona, Azkorbebeitia eta Ajuria.

## ADITUAREN TXOKOA

**GOTZON GOMEZ BARRENETXEA**
Errugbia



### DRTk 30 urte bete ditu

Michael J. Foxek "Back to the future" filmean egiten duen moduan, 1986. urtera bueltatzeko aukera izango bagenu, ia inork ere ez zuen pentsatuko Durangoko gazte batzuei errugbi kluba sortzea bururatu zitzaienean hain ibilbide oparoa izango zutela.

Dagoeneko 30 urte bete dira, eta hasierako une horietan gazte ausart horiek zituzten ondasun guztiak 1.500 pezeta eta errugbi baloi bakarra ziren. Horren aldean, ilusioa, gogoak eta batez ere sekulako indarra.

Entrenatzeko eta jokatzeko hamaika tokitatik ibili eta udalarekin jo eta ke borrokatu ondoren, azkenean Arripausuetako zelaia eraikitzea lortu genuen. Hasieran hareazkoa zen, "Landakoko Infernua" ezizenez ezaguna. Geroago belar artifiziala jarri zuten, batez ere guraso askoren poztasunerako. Zenbat ikuzgailu hondatu ziren trantsizio horretan!

Hasieran, senior, kadete eta jubenilak etorri ziren. Ondoren, neskak, sekulako belaunaldia, Euskadiko txapelketa irabazi eta Espainiako txapelketarako sailkatu zena. Ondoren, errugbi eskola sortu zen. 30 urte hauetan ehunka pertsona pasatu dira klubetik. Denak zerrendatzeko tokirik ez eta nik bi gogoratu nahiko nituzke, nigan eragin handia izan dutelako, bata aspaldi joan zitzaigun "Perry", bestea Getxotik etorri arren nigan eragin handia utzi zuena, "Ortzi" jauna.

Maiatzaren 27an urteurrena ospatuko dugu. Hernani taldea etorriko da eta gauez jai erraldoia dugu Landako Gunean. Zorionak, DRT!



# “Kirol akzioaren kalitatea, jasotako barne eta kanpo informazioek determinatuko dute”

Kirola kalitatez egiteko zerbitzua da Ekana

**> KIROLA** Markel Onaindia

**Kirolari batek beharrezko duen prestakuntza eta zainketa osoa topatuko du Durangoko Ekana zentroan. Jokin Idirin eta Jon Urien prestatzaile fisikoez gainera, mediku, fisioterapeuta eta nutrizionista bana daude bertan.**

> *“Esfortzu proba hori eginda, segurtasuna emango dio pertsonari”*



Jarduera fisikoan eta kirolaren zientzietan lizentziatuak diren Idirin eta Urien abadiñarrak, Ekana zentroan, Olleria kalean.

**Kirolarientzat zerbitzu integrala eskaintzen duzue. Baina ez bakarrik elitekoentzat, ezta?**

**J.U.:** Hori da. Gure zentroa ez dago eliteko kirolera soilik zuzenduta. Futbolean oso sartuta dagoen jendea eduki dugu, baina kirolagaz argaldu gura duena ere bai. Helburua kontuan hartuta, entrenamendua indibidualizatua da denentzat, errendimendua hobetzeko.

**J.I.:** Eliteko kirolaria izan edo ez, errendimendua bakoitzarena da, eta denera egokitu ahal da. Pertsona ezagutzen dugu lehenik, eta gero planifikazio bat diseinatzen dugu.

**Kirola egiten hasiz gero, zergatik da garrantzitsua aholkuak eta laguntza jasotzea?**

**J.U.:** Azkenean, gorputzak muga bat dauka. Garrantzitsua da entrenamendurako egitura bat edukitzea, eta oreka eta atsedena edukitzea ere bai.

**Osasun azterketak egitea beharrezkoa da?**

**J.I.:** Oinarrizkoa osasuna da. Esfortzu proba hori eginda, segurtasuna emango dio pertsonari. Guk, horregaz, errendimendu aldetik pertsona zelan dagoen jakingo dugu, entrenamendua bideratzeko, eta onurak zein akatsak ezagutzeko. Gainera, lesioen errehabilitazioaz eta berregokitzeaz arduratzen gara.

**Entrenatzeko metodologia berritzailea duzue.**

**J.I.:** Gaur egungo entrenamenduak kirol akzioen perfekzionamenduan oinarritzen dira nagusiki. Mugimenduen errepikapenez baliatzen dira, analizatzaile kinestesikoan soilik oinarrituz, mugimendu hutsean. Guk, ordea, akzioaren hobekuntza optimoa, pertsona horrek kirol horretan erabili beharko dituen zentzumenak akzioaren errepikapen neurtuetan aplikatzetik etor daitekeela uste dugu. Ikusmena, entzumena, ukimena, propiozepzioa... Neurozientziatik datorren metodologia da. Pentsaera hau kirol munduan berria da. Europako eskola ugaritan erabili ohi diren Kindergarten eta Montessori metodologiek oinarri bera dute; esperientzia sentsorial, kognitibo, koordinatibo eta motorrek bat egitea.

**Zelan garatzen duzue praktikan teknika hori?**

**J.U.:** Lehendabizi kirolariaren akzio motorren heldutasuna antzeman behar dugu, hainbat testen bidez. Behin alderdi hau zehaztutakoan, bere entrenamenduari kutsu multisentsoriala ematen diogu, zentzumenak kirol akzioan barneratuz eta lotura sentsorial hobeak lortuz. Zentzumenen aktibazioan laguntzen diguten materialez baliatzen gara. Adibidez, ikusmena aplikatzeko optometriatik jaso ditugun panelak, kolore anitzak, laserrak edo argiak...



Ekana zentroko lan saio gunea.

ekana empathy eskola

2017. urte honetan martxan jarriko den proiektua da EEE. Neurozientzietan eta kirolean oinarrituko diren zenbait konferentzia eta tailer egingo dira bertan, esparru ezberdinetako profesionalekin eta interesatua dagoen edozeinentzat.

**Kirola kalitatez egiteko eskaintza integrala eskaintzen dute Durangoko Ekana zentroan:**

**Entrenamendu pertsonalak metodologia berritzaileekin.**
Saio indibidualak, zentroan bertan, etxean zein kirol instalazioetan gauzatzeko. Neurozientzietatik oinarrituz, kirolariaren zentzumenak barneratzen eta lantzen dituzte saioetan, errendimendua hobetzeko.

**Esfortzu probak.**
Oinarrizko osasun azterketa, esfortzu proba, esfortzu proba maximalak eta egoera fisikoa baloratzeko testak egiten dituzte zentroan.

**Osatu eta zaindu.**
Fisioterapia eta berregokitze zerbitzuak ere eskaintzen dituzte Ekana zentroan. Gainera, nutrizio arloko aholkuak jasotzeko aukera ere badago.



# Inmobiliariak

**AMBOTO INMOBILIARIA**
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO
Tel.: 946 813 562

## ETXEBITZAK ALOKAIRUAN

**DURANGO**. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 550€-tik hasita.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

**DURANGO**. Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

**DURANGO**. Errotaritxuena Atiko zoragarria 3 logela, bi komun, bi terraza zabal, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, eta garaje itxia lau kotxe sartzeko. Ikusgarria.

**DURANGO**. Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.

**ATXONDO**. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

**ELORRIO**. 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea balkoiarekin, komuna, eta garajea itxita.

**DURANGO**.-Kalebarria, 3 logelako etxebizitza, sukaldea, egongela, eta komuna. 120.000€.

**DURANGO**. ARTEKALE. Azken etxebizitzak, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 165.000€ -tik hasita.

**LEKEITIO**. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

**ABADIÑO**. Aita Letona. Etxebizitza ederra 2 logelarekin, komuna, sukaldea, egongela, garajea eta trastelekua.

**ABADIÑO**. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

**DURANGO**. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

**ATXONDO**. Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

**ZALDIBAR**. Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

## LURSAILAK SALGAI

**ABADIÑO**. 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Zonalde egokia.

**BERRIZ**. 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

**IURRETA**. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

**ABADIÑO**. Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000 m2. Informazio pertsonalizatua.

**AMOREBIETA. EUBA**. Txalet bifamiliar bat eraikitzeko lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.

**AMOREBIETA. LARREA**. 27.000 m2-ko lursail ederra, dena partzela bakarrean.

## BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

**ABADIÑO. GAZTELUA**. Baserri ikusgarria, arku eder batekin sarreran, ekialdera begira, 20.000 m2-ko lursaila baserriaren ondoan.

**BERRIZ**. Txaleta 1.200 m2-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

**ATXONDO**. Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

**BERRIZ**. Bº Murgoitio. Bifamiliar ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

**MENDATA**. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berriztatzeko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**DURANGO**. Eraikin atxiki ederra, izkina, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatzeko.

**BERRIZ**. Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobeak.

**ISD Inmobiliaria del Duranguesado**
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### HERRIKO GUDARI



• 100m2 . 3 logela, egongela, sukaldea jarrita esekitokiarekin, 2 bainugela (batek bainuontzia dauka eta besteak dutxaontzia), balkoia eta ganbara. Berogailu elektrikoa gaueko metagailu eta guzti. Gasta leihoraino. Garajea sarbide zuzenarekin. **300.000€**.

### ERROTARITXUENA



• Apartamentu ederra. Inguru berdeekin. 69,18 m2 erabilgarri ditu. 2 logela, egongela, sukaldea jarrita eta 2 bainugela ditu. Garajea itxita dauka. **285.000€**.

### TXIBITENA



• 92,20 m2-ko etxebizitza. Oso egoera onean. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 bainugela, balkoia eta ganbara. Trasteleku komunitarioa dauka bizikletentzat. Kalifikazio energetikoa: ORAINDIK LORTZEKO. **285.000€**.

### ASKATASUN ETORBIDEA



• Herri erdian dagoen etorbidea, garraio publikotik eta aisialdi parke batetik oso gertu. 90 m2-ko etxebizitza. Egongela, sukaldea jarrita, bi bainugela, hiru logela eta bi balkoi. Garaje-plaza prezioan barne. **272.000€**.

### FRANCISCO IBARRA



• 101 m2 erabilgarri dituen etxebizitza: 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 bainuela eta bi balkoi handi. Berogailua eta igogailua. **230.000€. E.E.Z.: E**

### BARRENKALEA



• Guztiz berriztatua eta erdialdean. 2 logelarekin, egongela, sukaldea jarrita eta bainugela. 3 balkoia. **190.000€**.

**www.inmoduranguesado.com**

**ETXETXO G. INMOBILIARIA**
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### J.M.ALTUNA



• 100 m2. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea esekitokiarekin. Egongela terrazarekin. Ganbara. Garajea. **269.000€**.

### MIKELDI



• APARTAMENTUA. Erdi berria. Erdialdean. Dena kanpora begira. Altua. Ganbararekin. **155.000€**.

### ZALDIBAR



• BERRIA, ESTREINATZEKO. 2 logela. 2 bainugela. Egongela. Sukaldea. Trastelekua. Garajea aukeran. **153.000€-tik hasita** (BEZa barne).

### MARTXOAREN 8´KO



• 100m2. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea esekitokiarekin eta balkoia. Egongela terrazarekin. Ganbara eta 2 garaje plaza. Eguzkitsua. **265.000€.**

### MENDIZABAL



• ERDI BERRIA. 2 logela. Bainugela. Egongela. Sukaldea. Ganbara eta garajea. **230.000€.**

### DURANGO (AUKERA)



• 3 logela. Bainugela. Egongela. Eguzkitsua. **80.000€**.

**LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN. KONTSULTATU.**
**www.inmoetxetxo.com**

**ALOKAIRUAN ETA SALGAI DITUZUN HIGIEZINEN BERRI EMAN NAHI AL DUZU?**

**Anbotok tarte hau eskaintzen dizu**

**Informazio gehiagorako:**
**Tel.: 946 217 902**
**publi@anboto.org**

# anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK
2 TEKNOLOGIA
3 LANA/NEGOZIOAK
4 DENETARIK
5 IBILGAILUAK
6 HARREMANAK
7 AISIA/KIROLA
8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

**Interneten eta paperean, doan:** Partikularrentzat - Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org.

**Paperean, ordainduta:** Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

## Higiezinak

### ETXEBIZITZAK

#### SALDU

**Aramaio.** Baserri etxea. Aukera asko. 140 m2 handitu daiteke. 3000m2-ko lur eremua. Eguzkitsua, Urkiolako Parke Naturalaren ikuspegi zoragarriak. Hiru hiriburuetatik hurbil. Tel.: 669 064 788.

**Berriz.** Etxe ederra herri barruan, kiroldegiaren eta eskolaren aurrean. Oso eguzkitsua da, eta bista zoragarriak ditu! Ia amaituta dago. Sukaldea, jangela, egongela, 5 logela, 3 bainugela, 2 kotxerentzako garajea, eta argitasun handia duen espazio handi bat, txoko edo lan egiteko gune gisa erabiltzeko modukoa. Aukera oso ona! Tel.: 651-34 80 08.

**Durango.** Durangoko Komentu kalean, pisua salgai. Liburutegi ondoan, Durango erdi-erdian. Etxe berria, estreinatu gabea, 2. solairua. Egongela, sukaldea, bi logela, 2 komun eta bi balkoi. Oso eguzkitsua, pisu paregabea, interesatzen al zaizu? Idatzi iezaidazu, 695 706 227 prezioa 219.000.

#### ERRENTAN EMAN

**Berriz.** Berrizko Sarria auzoko baserri bateko beheko etxebizitza, alokagai. Lur saila barne. Harremanetarako. Tel.: 635-74 19 68 eta 656-72 61 93.

**Zaldibar.** Bikote batentzat egokia, egoera oso onean. Logela bat, bainugela eta sukalde-egongela. Herriaren erdian (eskola eta udaletxe ondoan). Bi kaletara bistak. Igogailua. Garajeetan 15m2-ko trasteleku bat. Tel.: 664 102 791.

**Durangaldea.** Apartamentu bat alokatzen dut Durangotik gertu. Ortua ipintzeko lursaila dauka. Tel.: 635-70 08 66.

### LOKALAK

#### SALDU

**Berriz.** 37 metro karratuko lokal komertziala salgai Berrizen. Tel.: 628-71 66 21.

#### ERRENTAN EMAN

**Atxondo.** Atxondon lokala alokagai Artia industrialdean. Bi solairu ditu, eta solairu baikoitzak 180m2. Tel.: 657-79 42 92.

### GARAJE / TRASTEROAK

#### ERRENTAN EMAN

**Durango.** Durangon garaje-plaza alokatzen da, trasteleku eta guzti. Euskaltel denda ondoan. Tel.: 676-97 95 77.

## Lana - negozioak

### LAN ESKARIAK

#### PERTSONAK ZAINDU

**Durangaldea.** Neska arduratsua lan bila pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Tel.: 602-19 06 14.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen dituen neska arduratsua. Tel.: 631-60 28 83.

**Durangaldea.** Neska lan bila dabil, bezeroaren arretan jarduteko, sukaldari laguntzaile, garbitzaile edo pertsona nagusien zaintzan. Lan esperientzia arlo ezberdinetan. Gida baimena badaukat. Astegunetan edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 617-13 62 22 (Nora).

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zein umeak zaintzen, baita garbiketan ere. Barneko edo kanpoko langile moduan. Tel.: 664-89 94 02.

**Durangaldea.** Barneko edo kanpoko langile modura zein orduka zaintza lanak egiteko prest. Tel.: 664-89 92 40.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen zein garbiketan. Astelehenetik ostiralera, orduka zein asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 631-30 32 11.

**Durangaldea.** Esperientziadun emakumea nagusiak zaintzeko prest. Orduka zein barneko edo kanpoko langile jarduteko prest. Tel.: 632-29 15 39.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen lan bila nabil. Arratsaldez, gauez zein asteburuetan lan egiteko prest. Baita jai egunetan ere. Garbiketan ere aritu naiteke. Tel.: 690-68 73 95.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zein umeak zaintzen, baita garbiketan ere. Barneko edo kanpoko langile moduan. Tel.: 602-40 95 30.

**Durangaldea.** Lan bila garbiketan, edo nagusiak zein umeak zaintzen. Esperientzia dut etxez etxeko laguntzaile lanetan. Geriatrikoko laguntzaile lanetan ere jardun dut. Tel.: 607-08 60 90.

**Durangaldea.** Garbiketan zein pertsona nagusiak zaintzen lan bila nabil. Lanaldi erdian, osoan, orduka, asteburuetan, gauez, barneko eta kanpoko langile moduan aritzeko prest. Tel.: 646-20 72 71.

**Durangaldea.** Emakume arduratsua pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko prest. Garbiketan, sukaldean.. aritzeko ere prest nago. Kanpoko langile moduan edo orduka, gauez edo asteburuetan aritzeko prest. Berehala lanean hasteko moduan. Tel.: 663-37 51 55.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketan. Lanaldi erdian, osoan, orduka, asteburuetan, gauez zein barneko langile moduan aritzeko prest. Tel.: 632-97 59 95.

**Durangaldea.** Kanpoko langile moduan edo orduka, pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Tel.: 673-02 86 98.

**Durangaldea.** Lan bila nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko edo kanpoko langilea. Asteburuetan ere lan egiteko prest. Emakume arduratsua. Tel.: 611-34 12 90 Tel.: 674-92 10 25.

**Durangaldea.** Erreferentziadun pertsona arduratsua lan bila pertsona nagusiak zaintzen zein garbiketan. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 658-99 50 63.

**Durangaldea.** Erreferentziadun langilea lan bila pertsona nagusiak zaintzen. Orduka lan egiteko prest. Tel.: 632-16 37 82.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzen lan bila nabil, lanaldi erdian edo orduka. Goizez zein arratsaldez lan egiteko prest. Tel.: 670-67 46 41.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, baita garbiketan ere. Kanpoko langile moduan edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 631-69 80 95 Tel.: 722-56 22 41.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzen zein etxeen edo atarien garbiketan lan bila nabil. Kanpoko edo barneko langilea. Tel.: 631-09 65 52.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zein umeak zaintzen, baita etxeetako eta jatetxeetako garbiketan ere. Kanpoko langilea edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 632-67 95 50.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko prest. Orduka, barneko zein kanpoko langile moduan edo gauez. Tel.: 632-41 25 27.

**Durangaldea.** Kanpoko langile moduan, arratsaldez zein asteburuetan pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Tel.: 632-89 23 84.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzeko prest. Barneko edo kanpoko langile modura zein orduka. Tel.: 632-20 42 45.

**Durangaldea.** Neska euskalduna, ikasketaduna eta esperientziaduna umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko prest dago. Tel.: 662-36 41 67 Tel.: 946-81 39 40.

**Durangaldea.** Astelehenetik barikura edo orduka, pertsona nagusiak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. Tel.: 669-66 77 90.

**Durangaldea.** Lan bila nabil garbiketan (atariak, etxeak, jatetxeak) edo pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Lanaldi osoan edo kanpoko langile moduan aritzeko prest. Tel.: 632-64 19 37

**Durangaldea.** Pertsona arduratsua eta esperientziarekin lan bila nagusiak edo umeak zaintzen edo etxeak garbitzen. Kanpoko langilea zein orduka. Tel.: 631-69 80 95.

**Durangaldea.** Esperientziadun neska barneko langile moduan pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 632-23 07 84.

**Durangaldea.** Barneko langile moduan lan egiteko prest nago. Erreferentziekin. Tel.: 631-36 95 87.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Tabernak, atariak eta etxeak garbitzeko ere prest nago. Horrez gain, sukaldean laguntzaile moduan aritzen naiz. Kanpoko zein barneko langilea, gauez lan egiteko prest. Erreferentziak ditut, eta esperientzia baita ere. Tel.: 602-80 83 85.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzeko lana bilatzen nabil. Tabernak, atariak eta etxeak garbitzeko ere prest nago. Lisatzen ere aritzen naiz. Erreferentziak ditut. Orduka lan egiteko prest, nahiago goizez. Tel.: 631-67 39 39.

**Durangaldea.** Lan bila nabil, pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Garbiketan ere aritzen naiz. Esperientzia dut. Astegunetan eta asteburuetan, baita orduka ere. Tel.: 631-12 01 43.

#### IRAKASKUNTZA

**Durangaldea.** Neska arduratsua, esperientziaduna eta euskalduna umeak zaindu eta LHko gazteei partikularrak emateko prest, Durangon zein lurretan. Magisteritza ikasten nabil eta EGA titulua daukat. Tel.: 692-92 65 57.

**Durangaldea.** Neska euskalduna, administrazio ikasketak eta esperientzia duena. Lehen Hezkuntzan eta DBHn partikularrak banaka zein talde txikietan emateko prest. Tel.: 662-36 41 67 Tel.: 946-81 39 40.

**Durangaldea.** Neska euskalduna, biologian graduatua eta Egaduna. Umeei klase parrtikularrak emateko prest. Tel.: 695-71 94 32.

#### GAINERAKOAK

**Durangaldea.** Lan bila nabil pintore, igeltsero edo obrako lanetan. Esperientziaduna. Tel.: 617-13 62 22.

### LAN ESKAINTZAK

**Durangaldea.** Pertsona euskalduna behar dugu asteburuetan jatetxean zerbitzari lanetan aritzeko. Tel.: 689-80 23 62.

#### ETXEKO LANAK

**Durangaldea.** Pertsona baten bila gabiltza pertsona bat zaintzeko Lekua: Elorrio. Ordutegia: 11:30etik 15:30era,eta 15:30ean jubilatuen etxera eramatea (itzulia ez). Denbora: 15 egun. Apirilean kontratu: erregimen orokorra(ez etxeko langilea). Kontratu laborala. Tel.: 690-28 60 71.

#### IRAKASKUNTZA

**Durangaldea.** Ingeleseko klase partikularrak emateko irakasle bat behar da. Tel.: 607-45 53 96.

#### GAINERAKOAK

**Durangaldea.** Durangaldeko hagin klinika batean, odontologiako auxiliarra bilatzen da, lanaldi erdirako (higienista titulua edukitzea baloratuko da). Bidali curriculum-ak mari-zama@hotmail.com helbidera.

## Denetarik

### SALDU / EROSI

**Border collie txakur kumeak salgai.** Otsailaren 24an jaioak. Parasitoen kontrako tratamendua egina. Harremanetarako, telefonoz zein whatsapp bidez. 685 750 917 eta 665 725 262

**Gurpil-aulkia eta ohe artikulatuak salgai.** Gurpil-aulkia; erosi berria: 150 euro. Metalezko ohe artikulatua eta motorduna; egoera onean: 200 euro. Metalezko ohe artikulatua motor barik; egoera onean: 100 euro. Tel.: 669 276 295.

**Oilar eta oiloak salgai.** Euskal arrazako oilar eta oilo gorriak eta australorp arrazakoak salgai. Tel.: 626-94 51 00 (Mikel).

**Hozkailua salgai.** Zanusi markako hozkailua saltzen dut, 50 euroan. Izozkailua ez dabilen arren, hozkailua berri-berri dago. Tel.: 636-04 63 18 (Felisa).

## Ibilgailuak

### FURGONETAK

#### SALDU

**Volkswagen multivan comfortline 2.5 tdi 130 cv.** 7 eserleku, 5 ate, 3 aldeko klimatizagailua (turismoa) errebisio guztiak tailer ofizialean. Tel.: 652-70 27 65 (Karmelo).

### GAINERAKOAK

#### SALDU

**Giant bizikleta saltzen dut.** Neurri ertaineko giant bizikleta saltzen dut. Ondo zaindua, eta erdi berria. Prezio ekonomikoa. Tel.: 630-98 50 56.

## Familia - etxea

### HAURREN TXOKOA, OSAGARRIAK

#### SALDU

**Haurren bebecar markako kapazu eta aulkia saltzen ditut.** Haurren bebecar markako kapazu eta aulkia saltzen ditut, zaku eta guzti. Gehigarriak oparitzen ditut, (uretako babesa, eguzkitakoa, hamaka eta paseo aulkia bby markakoa). Dena egoera onean dago. Prezioa adosteko. Tel.: 686-96 63 73. Esther

# AGENDA

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



**Apirilaren 8an, 20:00etan, Elorrioko Ateneoan**

## Nire

Lisabö taldeko bateria-jotzailea izan zen Ivan Zabalegiren bakarkako proiektua da Nire. Rocka eta country alternatiboa osagai nagusi dituen 'Hamabost' lana aurkeztuko du Elorrioko Ateneoan. Bost euroren truke, sarrera eta edaria eskuratu ahalko dira.

## Musika

**:: BERRIZ**

APIRILAREN 8an

**20:00etan,** Nire, Arriolan.

**:: DURANGO**

APIRILAREN 7an

**20:30ean,** Durangoko orfeoia, Andra Marin.

APIRILAREN 23an

**13:00etan,** Itsua + Paddy Rekalde, Plateruenean.

## Erakusketa

**:: DURANGO**

MAIATZAREN 1era arte

'Picasso Durangotik Gernikara' erakusketa, Arte eta Historia Museoan.

**:: ELORRIO**

APIRILAREN 21era arte

'Elorrion kisketa zabalik emakumeon aniztasunari' erakusketa, Iturrin.

**:: ZALDIBAR**

APIRILAREN 20tik 29ra arte

Gervasio Sanchez eta Mónica Bernabé argazkilarien 'Emakumeak. Afganistan', Gallastegi burdindegia zegoen lokalean (Euskal Herria kaleko 24. zenbakian).

## Pasiñoa

**:: DURANGO**

APIRILAREN 11n, 13an eta 14an

**21:00etan,** Durangoko Pasiñoaren antzezpena, Santa Anan.

## Antzerkia

**:: BERRIZ**

APIRILAREN 28an

**18:00etan,** El lagarto baila, Kultur Etxean.

**:: DURANGO**

APIRILAREN 9an

**18:00etan,** Euria, San Agustinen.

APIRILAREN 12an

**22:00etan,** Kaput, San Agustinen. Topaklown.

APIRILAREN 13an

**18:00etan,** Mecha show you, musika eskolako plazan. Topaklown.

**19:00etan,** Open door, musika eskolako plazan. Topaklown.

**21:00etan,** Cualquiera que nos viera, San Agustin kulturgunean. Topaklown.

APIRILAREN 14an

**20:00etan,** Mr. Kebab, San Agustinen. Topaklown.

**22:00etan,** Nosferatu in love, San Agustin kulturgunean. Topaklown.

APIRILAREN 15ean

**20:00etan,** Juntos, San Agustin kulturgunean. Topaklown.

**22:00etan,** V. Topaklown kabareta, San Agustin kulturgunean.

APIRILAREN 16an

**20:00etan,** Topaklown ikastaroen erakustaldia, San Agustin kulturgunean.

**:: ELORRIO**

APIRILAREN 28an

**22:00etan,** Jainko basatia, Arriolan.

**:: IURRETA**

APIRILAREN 7an

**19:00etan,** La Percha, Ibarretxe kultur etxean.

## Kontalaria

**:: ELORRIO**

APIRILAREN 21ean

**22:00etan,** Maite Arrese kontalariaren eta Mau Ziemkiewicz biolinistaren 'Cuentos de amor' eta Dorleta Kortazarren 'Palabras encadenadas' Arriolan. Munduko kontu kontalariak.

## Lehiaketa

**:: DURANGO**

APIRILAREN 9an

**18:00etan,** Zaping film laburren lehiaketa, Plateruenean.

## ZINEMA

**:: BERRIZ** KULTUR ETXEA

**Moonlight**
- **barikua 7:** 22:00
- **domeka 9:** 19:00

**:: DURANGO** ZUGAZA

**Life**
- **barikua 7:** 19:30-22:00
- **zapatua 8:** 17:00-20:30-22:30
- **domeka 9:** 16:30-19:00-21:15
- **astelehena 10:** 18:30-21:00
- **martitzena 11:** 20:00
- **eguaztena 12:** 20:00

**Power rangers**
- **barikua 7:** 19:30-22:00
- **zapatua 8:** 17:00-19:30-22:30
- **domeka 9:** 18:30-19:00-21:15
- **astelehena 10:** 18:30-21:00
- **martitzena 11:** 20:00
- **eguaztena 12:** 20:00

**Primer ministro**
- **barikua 7:** 19:30-22:00
- **zapatua 8:** 19:30-22:30
- **domeka 9:** 21:15
- **astelehena 10:** 18:30-21:00
- **martitzena 11:** 20:00
- **eguaztena 12:** 20:00

(jatorrizko bertsioa)

**Igelen erresuma**
- **zapatua 8:** 16:30
- **domeka 9:** 16:30

**Los pitufos. La aldea escondida**
- **zapatua 8:** 18:30
- **domeka 9:** 16:30

**:: ELORRIO** ARRIOLA

**El guardián invisible**
- **zapatua 8:** 22:00
- **domeka 9:** 20:00
- **astelehena 10:** 20:00

**Orm elurretako erresuman**
- **domeka 9:** 17:00

**:: ZORNOTZA** ARETOA

**Mañana empieza todo**
- **zapatua 8:** 19:30-22:00
- **domeka 9:** 20:00
- **astelehena 10:** 20:15

**Fences**
- **martitzena 11:** 20:15

## APIRILEKO AGENDA

Iurreta Elizateko Udala

**7**

**ANTZERKIA ARETOAN** TEATRO IBARRETXE KULTUR ETXEAN
**19:00** LA PERCHA - LA SOMBRA DEL TEATRO
Sarrera dohainik - Gonbidapenak kultur etxean.

**IBARRETXE KULTUR ETXEAN** TAILERRAK LUDOTEKAN
**18:45-20:00** Umeentzako tailerrak.
Talde bi egongo dira 3-6 eta 7-12 urteko umeentzat.
PAZKO ARRAUTZA TAILERRA (3-6 urtekoentzat)
ZIENTZIA TAILERRA (7-12 urtekoentzat)

**8**

**NAGUSIEN ETXEA** GOIURIKO AMA NAGUSIEN ELKARTEA
**19:00** Defuntuen meza Nagusien etxean.

**10 11**

**HAUR GAZTE LIBURUAREN EGUNEKO OSPAKIZUNAK**
MARGO TAILERRAK
**9:30-11:30** LH 1-3. mailetako haurrak.
**11:30-13:30** HH 4-5. mailetako haurrak.

**STOP MOTION tailerra**
**9:30-11:30** LH 5-6. mailetako haurrak.
**11:30-13:30** LH3-4. mailetako haurrak.

**15**

**ODOL EMATEA**

**21**

**ANTZERKIA ARETOAN** TEATRO IBARRETXE KULTUR ETXEAN
**17:00** AHATETXO ITSUSIA - GLU GLU
Sarrera dohainik - Gonbidapenak kultur etxean.



**Apirilaren 9an, 18:00etan, Durangon**

## Markeliñeren 'Euria'

Otsailean FETEN antzerki jaialdian ikuskizun onenaren saria jaso zuen 'Euria' obra eskainiko dute, domekan, Durangoko San Agustinen. Zornotzako Markeliñe taldearen azken lana da. Galera baten aurrean bizitzen jarraitzeko gaitasunari buruzkoa.




## BOTIKAK

**BARIKUA, 7 · 09:00-09:00**

**Balenciaga**
Ezkurdi plaza 8 - Durango

**Guarrochena, Lide**
Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

**ZAPATUA, 8 · 09:00-09:00**

**Mugica**
Andra Maria 9 - Durango

**Guarrochena, Lide**
Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-13:30

**Balenciaga**
Ezkurdi plaza 8 - Durango

**Navarro**
Artekalea 6 - Durango

**Navarro**
Artekalea 6 - Durango

**Bazan Diaz**
Uribarri 5 - Durango

**Campillo**
Montevideo etorb. 24 - Durango

**De Diego**
Intxaurrondo 22. - Durango

**Unamunzaga**
Muruetatorre 2C - Durango

**Sagastizabal**
Askatasun etorb. 19 - Durango

**Larrañaga-Balentziaga**
Berrio-Otxoa 6 - Elorrio

**Bartolome**
Gabiola 2 - Berriz

**Eguren, Isabel**
Trañabarren 15 - Abadiño

**Goiria, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza

**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-14:00

**Irigoien**
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**DOMEKA, 9 · 09:00-09:00**

**Etxebarria**
Montevideo etorb. 2 - Durango

**Guarrochena, Lide**
Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**ASTELEHENA, 10 · 09:00-09:00**

**Navarro**
Artekalea 6 - Durango

**Goiria, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

**MARTITZENA, 11 · 09:00-09:00**

**Bazan Diaz**
Uribarri 5 - Durango

**Goiria, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

**EGUAZTENA, 12 · 09:00-09:00**

**Mugica**
Andra Maria 9 - Durango

**Goiria, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

**EGUENA, 13 · 09:00-09:00**

**Irigoien**
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

**Goiria, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)

## > ZORION AGURRAK

**zorionak@anboto.org**
eguazteneko 14:00ak arteko epea

Gozotegia gozatu Okindegia

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Rosario (671. alea)**! Hamabostean behin zotzegiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartelagura duzunean jaso dezakezu Iurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



> Martxoaren 30ean 8 urte egin zituen **Peru**k. Zorionak etxeko danen partez!



> Zorionak, **Maddi**! Oso ondo pasa dezazula zure zortzigarren urtebetetzean, merezi duzu-eta. Musu handi bat familia guztiaren partez.



> Zorionak, **Daniel**, amama, aittitte, aita, osaba eta gainontzekoen partez!



> Anaitxo bi hauek 6 eta 3 urte betetzen dituzte. Zorionak eta muxu erraldoi bat. Izugarri maite zaituztegu!



> Zorionak, **Ane,** etxeko guztien partez. Segi horrela, jatorra, alaia eta arduratsua izaten. Moxu pila, pila.



> Zorionak, Michael night! Jarraitu beti bezain dotore . Muxu potoloak zure neskatxen partez.



Akuilua

**Juan Zorrila Molina 'Jackie'** | Numismatika zalea eta grafitigilea | Durango, 1976

# "Nahiko ezkutuan daramat; isilean sufritzen den zaletasuna da numismatika"

Musika proiektu batean murgilduta dago azken 15 urtean Dj moduan ere badabilen durangar hau

**> AKUILUA** Aitziber Basauri

**Gertukoek baino ez dute Juan Zorrilarren numismatikarako zaletasunaren berri. Hala ere, 25 urte dira txanponak batzen hasi zela. Grafitiak ere baditu zaletasun musikaren amorratua den durangar honek.**

**Zenbat urte numismatikagaz hasi zinela?**
Bilduma egiten hasi nintzela 15 urte dira, baina, txanponak gordetzen hasi nintzela, 25 urte. Batek eta besteak ekarritakoak gordetzen nituen, eta apurka-apurka zaletzen hasi nintzen, bilduma egiten. Mundu zabal eta konplexu baten aurrean nengoela ikusi nuen. Txanpon pila daude, infinitua da. Oraindik aurkitzen ari dira.



**Ez da zaletasun oso ohikoa...**
Durangon ez dut zaletasun hori duen beste inor ezagutzen.

**Txanponak gordetzea baino gehiago da?**
Txanponaren ikerketa egiten da. Jatorria, non eginak diren, zein metalekin... historia dira.

**Zorotzat hartu izan zaituzte?**
Nahiko ezkutuan daramat. Familiak eta gertuko lau lagunek badakite zertan nabilen, baina isilean sufritzen den zaletasuna da numismatika (barrez). Ez naute inoiz zorotzat hartu, baina gauza arraro lez ikusten dute. Postal eta zigiluen bilduma ere egiten dut. 1900-1950 ingurukoa dut postalik zaharrena. Gutxi dira, baina idatzitakoak saiatzen naiz eskuratzen; istorio bat dute.

**Zein duzu txanpon zaharrena?**
Zaharrenek 2.000 urte inguru dituzte: Erromatar Inperioko edozein izan daiteke. Espainian egindako Kristo Aurreko bat ere badut, Iberiar Aldikoa.

**Bereziki gogoko duzunik?**
Erdi Aroko txanpon batzuk eta zilarrezko baten bat. Lortzea gehiago kostatu zait-eta. Dena den, 1.800 urte dituen Erromatar Inperioko txanpona izateak ez du esan gura garestia izango denik; urrezko txanpona izateak ere ez, askok uste duten lez. Zortzi errealekoa edo Napoleonen garaiko bost frankokoa ere asko gustatzen zaizkit.

**Zaletasun garestia da?**
Ez du zertan. Garestiak ez diren txanpon pila izan zenezake. Kontserbazio egoerak edo txanpona egin zeneko datak eragiten du balioan. Azoka txikietan, konbentzioetan, interneten edo enkanteetan hartzen ditut nik.

**Zenbat dituzu?**
Ez dakit. Zoratu naiteke kontatzen! Asko, tamainu eta metal askotarikoak. Oraindik erabiltzen diren beste toki batzuetakoak ere baditut.

**Diru-paperak ere badituzu. Errepublika garaikoak ere bai.**
Bai. Espainiako Bankuarenak, Euskadiko behin-behineko gobernuko ogasun ministroak Bilbon jaulkitakoak. Billete euskaldunak, 'eliodoro'ak ere baditut. 1.000 billete inguru izango ditut guztira. Horrez gain, Euskadiko behin-behineko gobernuko bi txanpon ere baditut, Belgikan egindakoak. Gobernu horren legenda eraman zuten bakarrak dira. Errepublikako txanponak eta 'estualdizkoak' ere baditut: metala urria zen orduan, armetarako behar zen, eta kartoia erabiltzen zuten. Bi aldeek egiten zuten dirua. Egoera kaotikoa zen.

**Horregaz zerikusirik ez duen zaletasuna ere baduzu: grafitiak egitea. Klandestinitatean ere ibilia zara?**
Bai, asko. Gauza asko askatzeko eta adierazteko modua izan dut. Txikitatik gustatu zait. Utzita izan dut urteetan; hala ere, azkenaldian, egin ditut lan batzuk enkarguz. Kurutziaga Ikastola alboko horma guztia neuk egin dut —zati batean Bilboko lagun batek lagundu zidan—, taberna bat ere margotu dut Elorrion...

**Zer gurako zenuke margoztu?**
Utzitako edozein tokitan egingo nuke grafitia. Hala ere, tren bat margotzeko gauza hori izan dut beti. Hori bai, legearen barruan egingo nuke. Ez dut jakin inoiz zergatik, baina grafitigileen artean beti egon da trenak margotzeko zera hori.

**Musika proiektu batean zaude orain murgilduta?**
Bai, N2OGU kolektiboan sartuta nago. Bilboko, Gasteizko eta Durangoko jendea gaude. DJak, Mc's-ak... Musika zale amorratua izan naiz beti. 20 urtetik gora daramatzat musikan sartuta, azken 15 urteak DJ moduan.

## LAUHORTZA

**AMAIA UGALDE BEGOÑA**

Kazetaria



### Bizipen BAT-ZUK

9… Ikastolan gaude, petoko marrazkia margotzen, kontzentratuta. Itziar irakasleak abestia ipini du radiokasetean: "hona aukera, jalgi hadi euskaraz….."; jada buruz dakigu.

10…"Zer, laburbidea hartuko dugu ala?"; kirolean oso onak izan ez garenok Korrika Txikian ere tranpak egiten genituen. 11… Gaztetxeko aldapa gogorra da! 12… Eider irakasleak erdi umorez erdi errietan esan digu bere aitak gure gelako batzuk ikusi zituela, testiguaren zain, erdara hutsez berbetan.

13… emozionatu gara, eta herri irteeraraino jarraitu dugu. Apurka-apurka atzean geratu gara, oso atzean, eta adarra jo digute Korrika amaierako autotik. 14… hura ere bai, gu ere bai, ni ere bai…15… lehen aldiz lekukoari HELDUta, Korrika barrutik bizitzen… 16… parranda usaina du Korrikak, Gasteizen ere izan gara!… 17… gauez ohetik altxa eta oilo narruarekin batu gara pelotoira… 18… Gidatzen, alboko karriletik ikusi ditut aldapan gora, zein argazki ederra!… 19… testigua euripean, eta hainbat metro iraun duen irribarrearen agujetak… 20… Hasiera etxetik gertu, Otxandion, historikoa!

Soziolinguistek diotenez, euskararekin lotutako bizipenak eta emozioak garrantzitsuak dira euskaraz bizitzeko pausoa emateko. Horrek ez du esan gura Korrikaren baikortasuna magikoa denik; arineketan doazen guztiak ez dira euskaraz biziko, gaitasuna eduki arren ere. Ez dakit barruan zer sentituko duten, baina nik euforia sentitzen dut. Eta behar dugu euforia apur bat, bizipen eder horiek behar ditugu, euskararena oztopo-lasterketa dela une batez ahazteko bada ere.

ALBERDI
HARATEGIA



ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658 · SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722